

# ASKOTARIKO SEGREGAZIOARI NOLA ERANTZUN HEZKUNTZA SISTEMATIK?

## Adostasunerako bide partekatu baterako oinarriak

Bigarren lan-saioan bildutako edukiak

2022ko irailaren 17an, Europar Biltzar Jauregia, Gasteiz

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

elhuyar
ezagutuz aldatzea

Dinamikaren koordinazioa eta edukiaren ustiaketa

# AURKIBIDEA

1. SARRERA ........ 2
2. TESTUINGURUA ........ 2
3. PROGRAMA ........ 3
4. METODOLOGIA ........ 3
5. BILDUTAKO EDUKIAK ........ 5
5.1 Sintesi dokumentuko erredakzioarekiko adostasun eta desadostasunak ........ 5
5.2 Sintesi dokumentuan identifikatutako erronkak kudeatzeko proposamenak ........ 22
5.3 Segregazioaren lanketa etorkizunean ........ 32
6. ERANSKINAK: LAN-TALDE BAKOITZEAN LANDUTAKO EDUKIEN AKTAK ........ 35

# 1. SARRERA

Segregazioari aurre egiteko neurriak hartzea da Euskal Herrian XXI. mendean gizarte aurreratu gisa dugun erronkarik nagusienetako bat. Herri ikuspegi batetik adostasunak lantzea funtsezkoa da eta, horretarako, konfiantza sareak josteko guneak sortzea garrantzitsua da.

Horregatik, Eusko Ikaskuntzak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera, gaian sakontzeko erabakia hartu zuen, honako helburuarekin: askotariko segregazioa irudikatuz, segregazioari aurre egiteko gizartearen ahotsa(k) jaso, adostasunerako bide partekatu baterako "dekalogoa" osatu eta erantzun proposamenak jaso.

Horretarako, hainbat foro parte hartzaile antolatu zituen:

- Lehena, 2022ko ekainaren 4ean, gizartearen ahotsa(k) jasotzeko eta adostasunerako bide partekatu baterako "dekalogoa" eta erantzun proposamenak biltzeko helburuarekin.

- Bigarrena, 2022ko irailaren 17an, lehen saioan landutako azpimarrei, osatutako dekalogoari, erantzuna emateko, proposamenak landuz.

Honako txostenak **bigarren dinamika parte hartzailean jasotako ideiak** biltzen ditu.

# 2. TESTUINGURUA

Gizarte erronkei erantzuteko beharrezkoa den etorkizuneko hezkuntza sistema pentsatzea ez da erronka makala. Erantzun partekatuak askoren artean bilatzeko, gaietan sakontzeko eta adostasun bideak jostea posible izan dadin gune egonkorrak eta anitzak sortzeko, elkarlanean oinarritutako bi bide ditu irekita Eusko Ikaskuntzak:

- Bata, Etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistemaren inguruko herri-hausnarketa:

  - Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren Liburu Zuria osatzea da helburua: Euskal Herriko jendartearen erronka nagusiak hausnarketa ardatz hartuta, lurralde desberdinetan partekatzen diren hezkuntza lehentasunak modu kolaboratiboan identifikatzea eta etorkizuneko eszenatoki desiragarriak definitzea, horiei erantzuteko beharko liratekeen proposamenen inguruko adostasunak landuz.

  - Honi bidea emateko, Euskal Autonomi Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean foro partehartzaileak antolatzea da helburua, 2021ko irailean burututako Ehun zubigileen foroari jarraipena emanez.

- Bestea, Euskal Herriko eremu administratiboetan irekita dauden prozesu desberdinetako gaietan sakontzen laguntzea:
  - Hau horrela, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin irekitako lankidetza markoan, 2022ko ekitaldian bi gaien inguruan sakontze ariketa partekatua burutuko da:

    - ✓ Irakasleen ahalduntzea etorkizuneko erronken aurrean.
    - ✓ Askotariko segregazioari nola egin aurre hezkuntza sistematik.

Azken gai honen testuinguruan kokatzen da Gasteizko Europa Biltzar Jauregian irailaren 17an segregazioaren inguruan egindako bigarren hausnarketa-saioa, hain zuzen ere.

Foro partehartzaile horren helburua adostasunetan oinarritutako "ulermen partekatua" finkatzea eta erantzun proposamenak lantzea izan da, aurrez hasitako lanari jarraipena emanez.

Lanketa horrekin, hiru emaitza nagusi nahi izan dira eskaini eta bueltatu partehartzaile guztiei:

- Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua.
- Adostasunen eta desadostasunen identifikazio partekatua.
- Adostasunei erantzuna emateko eta desadostasunak kudeatzeko proposamenen emaitza kolektiboa.

Horretarako, aurreko saioetan ezaugarritutako definizio, erronka eta azpimarren sintesia, "ulermen partekatua", aurkeztu zen saioan. Sintesi horretara heltzeko aplikatu den metodologia ere azaldu zen. Eta parte-hartze metodologiaren bitartez, talde txikietan bilduta bi ariketa nagusi burutu ziren:

- Sintesian jasoko edukien inguruko adostasunak eta desadostasunak landu.
- Adostasunei erantzuna emateko proposamenak eta esadostasunak kudeatzeko proposamenak landu.

## 3. PROGRAMA

Honakoa izan zen irailaren 17ko lan-saioko programa: 09:00 - Harrera

09:30 – Irekiera eta foroaren aurkezpena

10:00 Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua: Aurreko saioen emaitzen sintesiaren aurkezpena eta aplikatutako metodologiaren azalpena.

10:20 Ariketa I (dinamika partehartzailea): Sintesian jasoko diren esaldi eta esapideen inguruan adostasunak landuko ditugu. Adostasunen maila identifikatzeaz gain, desadostasunak identifikatuko ditugu ere.

12:00 Atsedenaldia

12:30 Ariketa II (Dinamika partehartzailea): Adostasunei erantzuna emateko proposamenak eta desadostasunak kudeatzeko proposamenak landuko ditugu.

14:00 Ondorioak eta Itxiera

## 4. METODOLOGIA

Saioaren planteamendu metodologikoa honakoa izan zen:

Hasteko, saio osoan zehar bilduko ziren hausnarketak komunean jartzeko baliatuko zen tresna aurkeztu zen: Mentimeter. Horren bidez, partehartzaile bakoitzak bere mugikorraren bidez hainbat galderari erantzun ahal izan zion eta erantzunak momentuan plenarioan aztertu ziren. Tresna frogatzeko partaide bakoitzari Euskal Herriko mapa batean nondik zetorren adierazteko eskatu zitzaion:




Jarraian, talde txikietan (8-10 pertsona) elkartuta eta konfiantza giroan, bi ariketa egin ziren:





**1. ariketa:** sintesi dokumentuko erredakzioaren inguruko adostasun eta desadostasunak landu:

Adostasun eta desadostasunak identifikatzeko lanketa sintesi dokumentuko 12 puntuak oinarri hartuta egin zen. Horretarako taldekide bakoitzari 5 minutuz bakarka hausnartzeko eskatu zitzaion eta, ostean, post-itetan bildutako ideiak taldekideekin partekatzeko. Erantzun guztiak aktalariak bildu eta multzokatu zituen.

Behin hori eginda, lehen ariketa borobiltzeko, sintesi dokumentuko 12 puntu nagusien adostasun maila neurtu zen plenarioan, Mentimeter tresna baliatuta. Horretarako, parte hartzaileek puntu bakoitzarekiko 1etik 10era zein adostasun maila zuten adierazi zuten beren mugikorrarekin.

**2.ariketa**: adostasun eta desadostasunak kudeatzeko proposamenak bildu:

Bigarren ariketan sintesi dokumentuan identifikatutako erronkak landu ziren, hezkuntzaren eginbeharrekin batera. Helburua izan zen sintesi dokumentuko 2.2. puntuan eta 3. puntuan jasotzen ziren erronkekiko adostasun eta desadostasunak kudeatzeko proposamenak biltzea.

Horretarako, talde bakoitza 2 azpi-taldetan banatu zen. Azpi-talde bakoitzari lantzeko 3 erronka esleitu zitzaizkion (HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA, KULTURARTEKOTASUNA eta LIDERGO POLITIKOA edo GOBERNANTZA PARTEKATUA, FORMAKUNTZA eta GIZARTEAREN

INPLIKAZIOA), ordubetez horien lanketa egin zezaten, hausnarketarako honako galderak oinarri hartuta:

- ☐ Zer egin beharko litzateke erronka hori(ek) kudeatzeko?
- ☐ Nork egin beharko luke?
- ☐ Non egin beharko litzateke?
- ☐ Noiz egin beharko litzateke?

Ostean, 25 minututan, lan-talde zabalean partekatu zuen azpi-talde bakoitzak hausnartutakoa eta talde bakoitzeko dinamizatzaileak bildu zituen adostasun eta desadostasunak kudeatzeko proposamen guztiak.

Azkenik, saioa borobiltzeko, plenarioan parte hartzaile guztiei eskatu zitzaien hausnartzeko etorkizunean segregazioaren lanketak eskatzen dituen neurrien eta norbanako eta eragileek duten konpromiso mailaren inguruan.

Horretarako Mentimeter tresna baliatuta hainbat galderari erantzuteko eskatu zitzaien: segregazioaren gaia lantzen jarraitzea beharrezkoa dela uste ote zuten; etorkizuneko lanketa horretan parte hartzeko prestutasuna ote zuten; eta zer egiteko prest leudekeen.

Galdera horiek erantzun ostean, Begoña Pedrosa Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburuordeak eta Beatriz Akizu proiektuaren Eusko Ikaskuntzako arduradunak eman zioten amaiera saioari.

Irailaren 17ko saioaren planteamendu metodologikoa Elhuyarrek landu zuen eta Aztiker eta Parte Hartuzekin batera dinamizatu zuen saioa.

# 5. BILDUTAKO EDUKIAK

Atal honetan irailaren 17an Gasteizko Europa Biltzar Jauregian egindako ariketetan identifikatu ziren ideiak bilduko ditugu, modu sintetikoan.

Taldez-talde bildutako eduki guztiak eranskinen atalean kontsulta daitezke (ordenatu, multzokatu edo itzuli gabe), atxikitako lantaldeen aktetan.

## 5.1 Sintesi dokumentuko erredakzioarekiko adostasun eta desadostasunak

### EZAUGARRITZEA ATALA

➢ **<u>Segregazioaren definizioa</u>**

Adostasunak

- ☐ Definizioa irekia da, teknikoa, eta egoera zaurgarrian egon daitezkeen kolektibo desberdinak biltzen ditu.
- ☐ Horrez gain, zehatza ere bada: gaitasuna, generoa, kultura, etab.
- ☐ Fenomenoaren ulermen partekatua errazten du eta gakoa ondo izendatzen du: ikasleen banaketa desberdina eta desorekatua. Faktore nagusiak ondo jasotzen ditu.

Desadostasunak / Testuan osatzekoak

- ☐ Definizioaz haratago diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo adostu eta partekatu batetik abiatu behar da. Arrakastarako item eta hitoak (helburu kuantifikagarriak) ezarri ahal izateko.

- ☐ "Eskola porrota ez izatea" bere baitan hartu beharko luke definizioak.

- ☐ Justizia soziala definizioan txertatu beharko litzateke.

- ☐ Erredakzioari dagokionez, erredakzio mota positiboarekin idaztea lehenesten da.

- ☐ Testukoa ez da segregazioaren definizioa, eskolatze segregatuaren definizioa baizik.

- ☐ Marko kontzeptual orokorra eraikitzen ari gara, toki guztietarako balio duena. Baina txostenean euskal hezkuntza ezaugarritzen duena zer den ez da aipatzen.

- ☐ Definizioari norabidea falta zaio: zertarako nahi dugu segregazioa gainditu?

- ☐ Segregazioa kalitate faltari lotuta dago.

- ☐ Terminologiari dagokionez:
    - o Terminologia zehaztu eta definitu behar da, irakurketa partekatua izan dadin beharrezkoa da. Zenbait termino modu ezberdinean erabiltzen dira testuan zehar eta kontraesankorra izan daiteke.
    - o Zalantza sortzen da hitz zehatz batzuekin: lurralde eta hezkuntza maila "bereko", deseroso sentiarazten du. Egokiagoa da "anitza" hitza txertatzea.
    - o Kultura terminoarekin zalantzak sortu dira: hitz egin al dezakegu "kulturaz" edo kultura globalaz hitz egin beharko genuke? Kultura bakarra al dugu lurraldeari lotuta? Identitate multipleak.
    - o "Hezkuntza-maila bera eskaintzen dute" esaldiarekiko zalantzak: esaldia anbiguoa da eta nahasteak eragin ditzake. Berriz formulatzea gomendatzen da.
    - o "Ezberdina" terminoarekiko zalantzak:
        - ✓ Eskolatze segregatu bereiziaren kontzeptua gehitu beharko litzateke definizioan, ezberdinaren ideiaren ordez. Ezberdintasunak bereizketa erreproduzitzen du, etiketatzen eta bereizten baititu batzuk eta besteak, hemengoak eta kanpokoak.
        - ✓ "Ezberdina" terminoa deserosoa da.
        - ✓ Definizioak ez du jasotzen ikasleen banaketa desberdinak ondorio negatiboak dituela. Deskriptiboegia da.

    - o "Euskal Herria ez den beste leku batzuetan jaiotako pertsonak" kontzeptua birformulatzea beharrezkoa da: segregatzearen arrazoi nagusia arrazoi sozioekonomikoak dira, eta, ondoren, pertsonen jatorria edo arrazializazioa. Euskal Herrian jaiotako ikasleekin ere badago segregazioa arrazoi sozioekonomikoengatik eta pertsona arrazializatuak izateagatik (ijitoak, adibidez). "Desberdintasunaren" ordez, kasu honetan, "identitate anitzak" erabil daiteke.
    - o "Egoera zaurgarrian dauden taldeak" kontzeptuaren ordez "pertsona zaurituak" kontzeptua erabiltzea hobea litzateke.

- ☐ Segregazioa arrazoi sozio-ekonomikoen ondorio dela azpimarratzeko beharra:

- Definizioaren testuak esplizituago jaso beharko lituzke segregazioaren ondorioak eta zergatiak: segregazioa da ikasleen banaketa desorekatua ikastetxeetan, arrazoi sozioekonomikoengatik.
- Alderdi sozioekonomikoa da garrantzia handiena duena segregazioaren aferan eta txostenean ez da oso garbi galdeitzen alderdi hori azpimarragarriena denik.
- Banaketa behartua denean da segregazioa (adb.: korte ekonomikoaren ondorioz). Modu kontzientean ematen da eta zoriz ez da gertatzen. "Ikastetxeen arteko ikasleen banaketa" motzegi geratzen da.

☐ Publiko/pribatu ardatza aipatzea:
- Publiko/pribatu ardatza gehitu behar da definizioan, eta baita hautatzeko aukera/eskubidea afera ere. Hala ere, segregazioa ez da soilik publiko/pribatu artean ematen, eskola eredu berdinen artean ere ematen da, edo batzuetan eskola beraren barruan (gela bat A ereduan eta besteak D ereduan). Hori ere kontuan hartu behar da.
- Falta da beste ezberdintasun maila bat: izaera publikoa/izaera pribatuari dagokiona, hots, zentroaren izaera juridikoa edo hezkuntza sistemaren antolaketa esparruan.

☐ Segregazioa dakarten bestelako arrazoiak ere aipatzeko beharra:
- Segregaziorako eta "guetizaziorako" bestelako arrazoi "minoritarioak" ere jasotzea garrantzitsua da.
- Genero edo erlijioaren araberako banaketa desorekatua teorian gerta daiteke, baina gero txostenean esaten den moduan, arazoa maila-sozioekonomikoa da.
- Definizioa aseptikoa da. Honako hauek gehitzea proposatzen da: hezkuntza politiken ondorioz…; egoera zaurgarrienean dauden ikasleen pilaketa ikastetxe zehatz batzuetan ematen da, ia gehienetan sare publikoan.
- Zaurgarritasun ideia azpimarratu behar da.
- Premia bereziak ez dira aipatzen.
- Segregazioa nondik datorren aipatu behar da: sistemikoa da, egiturazkoa (klasismoa eta arrazakeria ditu oinarri), kapitalista, patriarkala eta arrazista.
- Aldagai bakoitza behin eta berriro errepikatzea ez da beharrezkoa, intersekzionalaren txapelaren azpian sar daiteke, hau behin definituta.
- Hizkuntza eredua aipatu behar da, testuinguru soziolinguistikoa oso garrantzitsua da testuinguru honetan.
- Ez da ikastetxe barruko segregazioaren aipurik egiten. Zentro barruetan ere segregazioa gertatzen da, eta horrek ere agertu behar du: ikastetxe/zentro bakoitzaren baitan gertatzen den segregazioa. Harago joanda ere, Curriculumean ere segregazioa agertzen da…
- Segregazioa hezkuntza ez-formalean ere oso nabarmena da. Hau nolabait definizioari gehitu beharko litzaioke.

☐ Ikasleriaren pilaketa, kontzentrazioa ideia azpimarratzeko beharra:
- Segregazioa ez da banaketa, pilaketa baizik, eta pilaketa ikastetxe jakin batzuetan.
- Banaketa boluntario edo ez-boluntarioaren artean ezberdindu beharko luke.
- Erredakzioak bereziki azpimarratu beharko luke ikasleriaren kontzentrazioa.

## ➢ **Ondorioak**

### Adostasunak

- ☐ Kontzeptualki dena oso ondo zehaztuta dago, aukera berdintasuna bermatzen ez denaren ideia, batik bat.
- ☐ Ikuspegi orokorra jasotzen da, konplexutasuna jasotzen da: hainbat segregazio mota daude, baina eragina berbera da.
- ☐ Ados baliabideen berme ezak egoeran duen eraginaz esaten denarekin.
- ☐ Segregazioaren ondorio nagusia aukera-berdintasunean sortzen duen arriskua da. Ideia oso egokia eta azpimarratzekoa da.
- ☐ Terminologiaren argitasuna (ikasleen kontzentrazioa, ghettizazioa…) garrantzitsua da.

### Desadostasunak / Testuan osatzekoak

- ☐ Giza duintasuna azpimarrarekin agertzea proposatzen da.
- ☐ Eskola arrakastarekin batera, pertsona/talde garapena eta ongizate osasuntsua agertzea proposatzen da.
- ☐ Idazketan zehaztea falta da belaunaldi arteko pobreziaren transmisioa: desberdintasuna erreproduzitzen du, denboran mantentzen du eta finkatzen du, eta egoera horretatik ateratzea oso zaila izatea eragiten du.
- ☐ Erredakzioak segregazioaren ondorio nagusitzat hartu beharko luke ikasle ahul edo urratuen kontzentrazio handiak eragiten dituela.
- ☐ Erantzunkidetasuna. Gizarte konexio eta garapena agertzea proposatzen da.
- ☐ Falta da adieraztea eta balioan jartzea "ezberdinen artean nahastu gabe galtzen duguna, aberastean garena". Hori aitortzea eta azpimarratzea proposatzen da.
- ☐ (…) euren aukera berdintasuna, eskola arrakasta eta bizitza duin eta ongizaterako aukera kolokan jartzen da.
- ☐ (…) euskara eta euskal kulturatik urrundu/ukatu. Hizkuntza/kultura gutxituaren egoeran ere desberdintasuna eta gutxiagotze egoera sakondu egiten da.
- ☐ Gizarte kohesioaren aurka doa.
- ☐ Gizartearen elkarbizitzan modu negatiboan eragiten du
- ☐ Baliabideak bakarrik ez, baita ere interbentzioa segregazio hori ez gertatzeko.
- ☐ Heziketa bera helburua bezala jarri behar da, helburua ez da soilik gizarte kohesioa.

- ☐ Berdintasunerako funtsezkoak diren eskubideetan jarri behar dugu fokoa: ondorio larri eta sakonak sortzen dituzten horiei hezkuntzatik eta gizartetik erantzun behar zaie. Lehentasuna da galtzeko duten horiei egoera aztertzea.

- ☐ Segregazioak berdintasuna hausten du, desberdinkeria sortuz. Sortzen du ez, sor dezake.

- ☐ Eskolatze berezitua ez ipintzea proposatzen da. Termino hori eufemismoa dela uste da. Horren ordez, SEGREGAZIOA ipintzea proposatzen da, errealistagoa dela iritziz.

- ☐ IDENTITATEA, ideia ere findu behar da.

- ☐ Gaitasunari dagokionez: aukera berdintasuna hausten du horrek, bai, baina, hasierako ARRAKALA KULTURALA dago.

- ☐ Arrazakeriari dagokionez:
    - o "Arrazakeria" kontzeptua: ez da propioa, berezkoa, kanpokoa baizik. Ezberdintasunak denok ditugu: kulturan jatorria, azalaren kolorean, etab. Arrazakeriaren ordez, ARRAZIALIZATUAK egokiagoa litzateke.
    - o Arraza partez, etnia terminoa jartzea egokiagoa dela baloratzen da, eta aldi berean onartzen da oso eztabaida antropologiko espezializatua dela. Zalantza.
    - o Arraza kontzeptuaren ordez etnia erabili beharko litzateke.

- ☐ Segregazioak ere "gu" kaltetzen gaituela agertu behar da. Ezberdintasunetan oinarritzen den egitura hierarkikoak denok kaltetzen gaitu.

- ☐ Segregazioa eteteak, eta gizarte egitura horizontalagoak lantzeak eta elikatzeak, denok irabazle egiten gaitu, gizarte garapena dakar.

- ☐ Erantzunkidetasunarekin batera, txertatu beharko lirateke inplikazioa eta konpromisoa terminoak.

- ☐ Helduaroan aukera profesionalak gutxitzeko arriskua dago segregazioarekin.

- ☐ Eskola arrakastan gain ikasleen bizitzaren beste alderdi askotan ere eragin dezake.

- ☐ **Baliabideak bermatzearen beharra:**
    - o Segregazioak eskola arrakasta kolokan jartzen da, baliabide egokiak ez direlako jartzen.
    - o Herrietan ikastetxe jakinean batu behar dira bai ala bai. Honek ez du kolokan jarri behar baliabideak jartzen badira, ez dago zergatik porrota egon. Beste batzuetan, elkarrekin egotea nahi dute (Hauekin ez da planteatzen zentro aukeraketa librea).
    - o "Baliabide egokiak" erantzun mugatua da, neurri estrukturalak ere islatu behar lirateke, eta kolektibo guztiak aipatu: generoa, gaitasunak, etab.
    - o Baliabide egokiak bideratzen ez badira egoerak egonkortzen dira.
    - o Baliabideak segregazioari aurre egiteko: erabaki politikoak behar dira. Batez ere giza eta ekonomia baliabideak behar dira. Baliabideez gain borondatea ere behar da.
    - o Segregazioa ematen den ikastetxeetako ikasleek seguruenik ez dute zenbait baliabide. Guraso elkarteek aurrera eraman behar dituzte proiektuetan inplikatzea zaila gerta daiteke. Ume horiek bertako haur nahiz gazteekin harremanik ez izateak eragina dauka euren kapital sozial eta kulturala ezin zabaltzean.

- ☐ **Desadostasunak:**
  - o Defizitean oinarritutako planteamendua da. Hobe litzateke aukeretan oinarritutako diskurtsoa balitz.
  - o Hezkuntza-aukera berdintasuna hautsi egiten du aipatu beharko litzateke. Orokorragoa da aukera berdintasuna hausten du. Kohesio-sozialaren kontra doa.
  - o Iraupen luzeko ondorioak dituela aipatzea falta da.
  - o Kontzentrazioek ez dute zertan desberdinkeria sortu (adb.: Joaquín Ruyra).

- ☐ **Testuan gehitzeko bestelako ideiak:**
  - o Klase altuen inposaketa.
  - o Maila sozial desberdinak errepikatzea.
  - o Metatzeak=birsortzea dakar, hots, ezberdintasunetan indarra jartzea eta desabantailetan sakontzea.
  - o Arrakasta, zerrekin lotzen dugu? Ahalmen materialarekin? Arrakasta ere beste esparru eta dimentsio batzuetan badago!! Ez da soilik materiala aitortu behar!
  - o Helduaroan "hiritartasuna praktikan" jartzeko joera kolokan jarri behar da parte-hartze prozesuetan. Praktika demokratikoen espazioetan (deliberazioak, hausnarketak…).
  - o Erredakzioak eskola-arrakastaz hitz egiten du, baina agian komeniko litzateke zehatzago definitzea zer ulertzen dugun horrekin.

## ➢ Kausak

### Adostasunak

- ☐ Lehia neoliberalaren ideia esplizituki agertzea positiboki baloratu da.
- ☐ Kausen identifikazioa teorikoegia ote den aipatzen da eta, era berean, zuzena ere badela baloratzen da.
- ☐ "Masa"ren dimentsioa kontuan hartu beharra azpimarratzen da.
  - "Beste maila batzuetatik ere aurre egin beharko litzateke" esaldian honakoak zehaztea (interpelatuak senti daitezen) ere interesgarria litzatekeela uste da: hezkuntza ez-formala, hirigintza, mugikortasuna…
- ☐ Eztabaidan honako ideia interesgarria sortu da: "pertsona-taldeek ondo tratatzen dituzten lekuan egon nahi dute".

### Desadostasunak / Testuan osatzekoak

- ☐ Kausak sinpleegiak dira. Diagnostiko zorrotzagoa egitea beharrezkoa da eta segregazioa dakarten kasuak identifikatzea:
  - o Kausak sozialak, kulturalak, ekonomikoak, linguistikoak, ideologikoak… dira.
  - o Hezkuntza sistemaren arazoak ez dira soilik sistema neoliberalaren ondorio, sistema neoliberalaren tresna da hezkuntza sistema.
  - o Oro har, dokumentuak erreferentzia gehiago egin beharko lioke sistemari berari, hark sortzen baitu segregazioa, ez hainbeste fenomeno partikularrei edo zehatzei.
  - o Beharrezkoa da arrazoien zerrendatze-ordena aldatzea: lehenik, arrazoi sozioekonomikoak aipatu beharko lirateke, eta, ondoren, arrazoi soziokulturalak.
  - o Administrazio publikoaren erantzukizuna azpimarratu beharko litzateke, ikasleak modu batera edo bestera banatzeko eta baliabideak bideratzeko arduraduna baita.
  - o Masatik harago neurtu behar da fenomenoa, kuantitatiboa baino harago. Gehitu neurtu eta baloratu behar da zentro bakoitzean gertatzen den konplexutasuna. Ezberdintasun sozioekonomikoak neurtu eta kokatu eta ulertu zentro bakoitzeko,

tokian tokiko. Neurketak eta balorazioak kuantitatiboki eta kualitatiboki osatu behar dira.

- Estruktura klasista da arazoa. Egindako gaiaren kudeaketa eskasa ere bai, baina estruktura eredua bera.
- Segregazioa une historiko eta eredu ekonomiko honetan lehia neoliberalari dago lotura, arrazakeria eta klasismoarekin batera
- Bigarren paragrafoa beste modu batera formulatzea beharrezkoa dela uste da, hezkuntzaren ardura gutxiesten dela baitirudi "neurriak hartu daitezkeen arren…" esaldiarekin. Beldurti hitzarekin zer esan nahi da? Hori definitu beharko litzateke. Kudeaketa beldurtia norena da?
- Pentsatzea kudeaketa ausartak segregazioa ekidingo duela planteamendu sinpleegia da. Segregazioa kudeatu baino, berdintasuna eraiki behar da.
- (…) une historiko honetan lehia neoliberal patriarkalari, arrazakeria eta klasismoarekin batera
- Identitatearen ideian sakontzea beharrezkoa da: arazoaren iturburua neoliberalismoa da.
- Arrazakeria + Klasismoa: identitatearen hausnarketa kritikoa egin behar da. Zer da euskaldun izatea?
- Arrazoi sozio-linguistikoak ez dira aintzat hartzen: euskararen normalkuntza eza.
- Genero sistema bitar eta heteropatriarkala ere kausa bat da. Euskal Herrian, egun, generoaren arabera segregatzen duten eskolak badira.
- Fokoa ezberdintasunetan jartzen dugu eta berdintasunei lekua egin behar diegu, aniztasunari balioa eman behar diogu.
- Pribilegioez hitz egin behar da.
- Borondate eza, erabaki politikoek ardura, egoera areagotzen utzi.
- Kuotak eta baldintzak ere badira kausak.
- "Kudeaketa beldurtia da segregazioaren kausa": beste modu batean formulatu daiteke ideia hori, gehiago zehazteko kudeaketa eredu horren ardura zeinek duen.
- Beldurtia hitza baino, kudeaketa ez-ausarta egokiagoa litzateke. Horrez gain, kudeaketa beldurti hori nondik datorren aztertu beharko litzateke: interesak, klasismoa, jendea aurka izatea... Hau da, politika ez-ausartak posizio ideologiko eta politiko zehatzak ditu atzean.
- Eskolatze berezitua terminoa ez erabili, segregazioa baizik. Hezkuntza politikek zuzendu nahi izan ez duten ondorioak dira, sare pribatu itunduaren gehiegizko presentziagatik.
- Segregazioari aurre egiteko, ikerketa zientifikoa aintzat hartzen duen hezkuntza eredua aplikatu beharko litzateke, egun egiten ez dena.
- Gatazka ekosozialaren aipamena agertzea interesgarria izan daiteke.
- Beste faktore batzuk ere eragina daukate: familiek eskola aukeratzeko nahia; ereduari lotutako antolaketa; irakasleen papera garrantzitsua da aukera berdintasunean.

☐ "Hezkuntzak bakarrik ez, baina hezkuntzak asko egin behar du":

- Hezkuntzak bakarrik ezin du baina hezkuntzatik asko egin daiteke. Hezkuntza Sistema bera da segregatzailea bere egituran eta sisteman. Proiektu pluraltasuna bilatu baino pluralak diren proiektuak bilatu behar ditugu.
- Ezin da ardura soilik gizarte mailan jarri, gizartearen inplikazioa garrantzitsua izan arren. Eusko Jaurlaritzak gai anitzetan ditu eskumenak, ez soilik hezkuntzan, eta neurriak transbertsalak izan behar dute, eskala ezberdinetan, administrazio ezberdinetan eta Eusko Jaurlaritza barruan.

- o Segregazioaren kontrako lana ez da bakarrik hezkuntza sistemarena, baizik eta gizarte osoko beste erakunde eta instituzioena ere. Funtsezko ideia hori askoz gehiago zehaztu behar da, gauzatu ahal izateko.
- o "Komunitate gisan aurre egin beharra…" aipatu beharko litzateke testuan, era propositiboan.
- o Gizarteari inplikatzeko deia zorrotzago egin beharko litzaioke testuan.
- o Eskolak egiten ez duena ez du gizarte klasista batek egingo.

## ➢ <u>**Diagnostikoa**</u>

### Adostasunak

- ☐ Enpirikoki neurtu behar da eta adierazleak koherenteak izan behar dira helburuekin.

- ☐ Ez dira beldurrak eta erresistentziak bakarrik kudeatu beharko, baita matrikula jaitsierak ere.

- ☐ Diagnostikoa adostutako indizeekin egitea erabat beharrezkoa da, desiragarria den egoerara heldu edo hurbiltzen ari garen balioetsi ahal izateko.

- ☐ Herri mailako segregazioak aztertzea (hezkuntza ez-formala, hirigintza...) ere beharrezkoa da eta testuan tokia beharko luke, horrek eragin zuzena duelako hezkuntza segregazioan eta gerora horri aurreko egiteko egin beharreko lanketan.

- ☐ Eskolak bakarrik ezin du. Hezkuntzaren papera garrantzitsua da segregazioa gainditzeko, baina erantzukizuna soziala eta kolektiboa da. Ideia hori azpimarratu beharko litzateke.

- ☐ Datuek bilketarekin oso ados. Modu gardenean eman behar dira. Indizeak behar dira.

- ☐ Segregazioari komunitate gisa aurre egin beharra eta horrek denoi onurak dakarzkigula aipatzea beharrezkoa da.

### Desadostasunak / Testuan egokitzekoak

- ☐ Hezkuntza Sistemaren arazo orokorra da eskolatze segregatua, eta hezkuntza sistemak betikotu egiten du.

- ☐ Non kokatzen garen neurtzea, neurri zuzentzaileak hartzea eta egiten den hori etengabe jarraitu eta ebaluatzea beharrezkoa da. Indizeak dira garrantzitsuak, ondo adostuak.

- ☐ Azpimarratu behar da benetako diagnostiko bat oraindik garatu gabe dagoela, segregatutako zentroen errealitatea ikusteko, bai sare itunduan, bai sare publikoan.

- ☐ Sistemaz ari garenean, zertaz ari garen zehaztea beharrezkoa dela uste da: gizarte, agintari, administrazio osoa, agente sozial guztiak. Aldaketa demografikoak eta krisiak eragindako aldaketen aurrean, sistemak bere burua berrantolatu behar duela ere aipatu beharko litzateke.

- ☐ Atzeratze demografikoa kontzeptua agian ez da egokiena, eta hori segregazioa eragiten duen arrazoi nagusitzat aipatzea ere ez: egoera sozioekonomikoak oinarriturikoa da larriena, arrazismoarekin gurutzatua egiten dena.

- ☐ Segregazioaren fenomenoa hizkuntza politiken aldagaiarekin erlazionatuko duen aipamenik ez dago eta gehitzea beharrezkoa dela uste da (begira EAEko zenbait auzo ala lanbide heziketa; Nafarroan euskararen legea; Iparraldeko legeari oztopoak)

- ☐ Eskolatze berezitua neurtzeko estandarrak ezartzeaz batera, egoera sozio-kulturalaren (hizkuntzak) errealitatearen argazkia ere izatea beharrezkoa da.

- ☐ Testuan adierazten da segregazioak eragin berezia duela hirien kasuan, baina ez da beti hala izaten: ikastetxe bat baino gehiago dagoen herrietan ere gertatzen da, edo ikastetxe itundu bakarra dagoen udalerrietan (Orion, Bastidan, Amurrion, Ordizian, Eibarren, Soraluzen, etab.)

- ☐ Atzerrian jaiotako ikasleekin gertatzen den fenomenoa dela aipatzen da testuan eta hori ez da guztiz zuzena: Euskal Herrian jaiotako ijitoekin ere gertatzen zen/da.

- ☐ Segregazioa "hainbat erabaki politikok" eragin dutela testuan aipatzea beharrezkoa da.

- ☐ "Eskolaratze berezitua" terminoa ekidin beharko litzateke, eta segregazioa hobetsi.

- ☐ Diagnostikoa egiterakoan, segregazioa gainditzea sustatzen duten inpaktu sozialeko jardueren ebidentzia zientifikoak (goi mailako aldizkari zientifikoetan argitaratzen direnak) aintzat hartu beharko lirateke.

- ☐ Testuan gehitu beharko litzateke udalek gizarte-kohesioan duten garrantzia. Erakunde horiek zeregin garrantzitsuagoa izan beharko lukete, herritarrengandik hurbilen daudenak baitira.

- ☐ Ekonomia-auzia arrazoi segregatzaile modura ere nabarmendu behar litzateke, jatorriaz haratago. Gainera, hezkuntza-sistemaren antolaketa dualak honetan sakondu egiten du: titularitate publiko edo pribatua. Honi lotuta, ituntze-sistema unibertsala.

## ITUN SOZIALA ATALA

### ➢ <u>**Helburu orokorra**</u>

#### Adostasunak

- ☐ Berdinen arteko elkarrizketaren beharrari hierarkiarik gabekoa eta argudioen balioan zentratuta eranstea interesgarria litzateke. Ituna eraikitzeko ezinbestekoa da.

- ☐ Azpimarratzeko ideia: pertsonen eskubideak zainduaz eta pertsonak duen erantzukizunaz barneratuz gizarte justu eta ekitatiboan eragin lekuan lekuko itunez, eta zabalik egonaz.

- ☐ Gizarte kohesioa sustatzearen ideia garrantzitsua da.

#### Desadostasunak / Testuan osatzekoak

- ☐ Benetako aukera berdintasuna zer den definitu behar da.

- ☐ Ez da nahikoa itun soziala. Segregazio-egoera gainditzeko legeak eta araudiak behar dira.

- ☐ Itun soziala baino, bulkada instituzional argia behar da. Gainera, ituneko eragileen artean herritarrak/norbanakoak falta dira.

- ☐ Itunari berari garrantzia handia ematen zaio, baina funtsezkoa eskubideak bermatzea behar da izan. Pribilegioak zalantzan jarri behar ditugu, bakoitzak bere ardurak bere gain hartu eta eskubideez hitz egin behar dugu, eskubide urraketez, baita botere publikoek ere. Eskubide urraketekin amaitu behar da, hori da lehentasuna.

- ☐ Giza garapena eta giza eskubideak helmuga izateaz gain, oraina izan behar dute. Egunerokotasunean bermatu behar dira.

- ☐ Testuan osatzeko: (…) aterabide eta bide orri komun eta adostua praktika eraginkor batekin batera.

- ☐ Hezkuntza ez da gizarte eredu justu eta ekitatiboa sortuko duena, horren aurretik ardura beste batzuena da.

- ☐ Ekitatea terminoarekin batera interes edo pribilegio partikularrak alde batera uzteko beharra aipatu behar da.

- ☐ Testu osoan gizarte beharrean jendarte terminoa hobestea egokiagoa dela uste da.

- ☐ Ikastetxea "eutokia" bezala hartzen ari da (utopia + eu "ona"). Aukera berdintasuna bermatzeko erakundeak, elkarguneak, agora, plaza, laborategiak behar dira. Hori ikas komunitate osoaren erronka da.

- ☐ Testuan hainbat ñabardura:
  - o Bukaeran gehitu honako ideia: "gaur egungo asimilazionismoa baztertuz"(maila denetan: eskolan, gizartean, kalean, familian…)
  - o Oinarrizko aterabide komun, adostu eta ahaldundua.
  - o Eskolak ziurtatu eta ardaztu behar du "hemengoa" betea ukatu gabe, bestea ere barnebilduz.

## ➢ Hezkuntzaren eginbeharra

### Adostasunak

- ☐ Hezkuntza sistemak ikasleei euren bizitza garatzeko aukera berdintasuna bermatu behar die. "Ideia nagusia eta helburua behar luke".

- ☐ Segregazioak ondorio horiek dakartza, baina ondorio horiek ez dira soilik segregazioagatik gertatzen.

- ☐ Tentsioa sumatzen da hezkuntza eta eskolaren egitekoan

- ☐ Aukera berdintasunaz haratago, arrakasta ere bermatu behar da.

- ☐ Hezkuntzan kalitatezko aukera berdintasuna lantzeko baliabideak jarri eta borondate politiko sendoak ehunduz; ikastetxearen errealitatea aintzat hartuz.

- ☐ Lehen paragrafoan hezkuntzan "askatasunez" hitza gehitu beharko litzateke

- ☐ Hezkuntzaren zerbitzu publiko izaera bultzatu behar da, baliabideak jarriz eta borondate politikoa ehunduz.

Desadostasunak / Testuan osatzekoak

- ☐ Eskola/hezkuntza sistema gizarterako tresna gako bezala ulertu behar da. Horretarako itun komun eta adostua sortu behar da. Ideia hori azpimarratu eta argiki adierazi behar da.

- ☐ Hezkuntzaren zerbitzu publikoa izaera bultzatu behar da, aukera berdintasuna lortzeko baliabideak bermatuz. Horretarako, hezkuntzaren egungo antolaketa eredua gainditu behar da, ituntze-sistema unibertsala gainditu.

- ☐ Ikastetxe askotan bizi den segregazio-egoera eragitearen ardura hezkuntzarena dela aditzera ematen da, baina errealitatea da desberdintasunaren aurkako borrokak estrategia orokor itundua eskatzen duela, gizarte-justizia posible egingo duten politikak. Segregazioa gizarte-arazo bat da, eta, horregatik, gizarte-mailako ekimenak behar ditu, segregazioa dagoeneko auzoetatik datorrelako... Ideia hori jasota dago testuan, baina arreta handiagoa jarri beharko litzaioke: berdintasun-/ekitate-kuotak handiagoak izango dira gizarte-mailako neurriekin, administrazioen arteko lankidetzarekin...

- ☐ Hezkuntza sistemak bakarrik ezin du. Gainerako agente klabe horiek zehaztea, zerrendatzea, interpelatzea beharrezkoa da.

- ☐ Eskola-arrakasta ikasle bakoitzarentzat aukerak sortzea dela ulertzea da aukera-berdintasuna bermatzeko oinarria. Horregatik, helburu horiek lortzeko baliabide gehiago eman behar zaizkio eskolari. Eskolan aniztasuna behar bezala kudeatzeko baliabideak beharrezkoak dira.

- ☐ Berdintasuna emaitza akademikoetan bermatzea beharrezkoa da.

- ☐ Ikastetxeen autonomiaren kontzeptua gehiago argitu beharko litzateke: ez da ikastetxe bakoitzak zer egin aukeratzea, baizik eta bakoitzak bere errealitatetik jarduteko aukera izatea. Horretarako, nahikoa baliabide bermatzea eta irakasleen prestakuntza behar dira.

- ☐ Tokiko garapena bultzatzeko baliabideak behar dira.

- ☐ Tokian-tokiko neurri zuzentzaileak hartu behar dira, ikastetxeei eragiten dietenak eta lotesleak direnak.

- ☐ Ikasle eta familiez hitz egiten da baina fokoa zabalagoa da: hezkuntza komunitateaz hitz egin behar da ikuspegi ezberdinak kontuan hartuta. Horrez gain, familiak komunitatearen parte bilakatzea ere beharrezkoa da.

- ☐ "Bermatu" jartzen duen lekuan "lagundu" hitza jartzea proposatzen da, ezin baitzaio hezkuntzari pisu guztia jarri, eta hezkuntzak ezin du "bermatu" sistemaren beste ataletan ere ez bada bermatzen. Ez da soilik eskolaren zeregina. Modu sistemikoan begiratu beharra, begirada sistemikoa.

- ☐ Eskola gizartearen ezberdintasunen isla da.

- ☐ Eskola tresna da eta izan behar du gizarte hobe baterantz joateko.
- ☐ Ardura Hezkuntza Sailarena da, erantzukizun handia du. Mekanismo segregatzaileak aldatu eta baztertu behar ditu, hori da bere eginbehar nagusia.
- ☐ Hezkuntza sailak eta tokiko administrazioak ardurak beren gain hartu behar dituzte eta kontrolerako mekanismoak ezarri.
- ☐ Eskuhartzeak ikastetxe bakoitzean egin behar dira baina saretuta, bestela oso bakartia da. Auzoan, herrian… asko mugatuko da bestea eskuhartzearen eragina eta ahalmena.
- ☐ "Ikastetxe bakoitzean dauden berezitasunak" neurtuta egon behar dute, benetan behar dituzten baliabideak eskaintzeko.
- ☐ Aniztasuna ezin da soilik balore positibo moduan ulertu. Segregazioa gizarte neoliberal batentzat nahita egindako elementua da. Sistemikoak izan behar diren aldaketak ez dira sintesi txostenean agertzen, soilik dimentsio konpentsatzailea.
- ☐ Familien aukeratzeko eskubidea bermatzea ere garrantzitsua da..
- ☐ Ezberdintasuna kudeatzen ikastea beharrezkoa da jendarteko kide guztien partetik.

## ➢ **Euskara oinarri**

### Adostasunak

- ☐ Ideia nagusiak honakoa behar du izan: "euskara jakiteak eta ezagutzeak gizarte-kohesioa eta aukera-berdintasuna sustatzen eta areagotzen ditu"..
- ☐ Hezkuntza sistemak euskalduntzeko bermea eskaini behar du.
- ☐ Gune erdaldunetan euskaraz hitz egiteko arnas guneak bermatu behar dira.
- ☐ Euskara oinarri eta ardatz izan behar da; baita euskal kultura ere, eta ondarea, berezitasunak ezagutzeko eta bizitzeko aukera emanez.
- ☐ Euskararen ezagutzak aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa elikatzen ditu.

### Desadostasunak / Testuan egokitzekoak

- ☐ Jatorrizko hizkuntza-kulturen potentziala azpimarratu behar da gehiago eta horri neurri zehatzak jarri. Horretarako kulturartekotasunaren printzipioak definitu beharko lirateke. Euskararen eta gaztelaniaren ezagutza bermatu behar da.
- ☐ "Hiritartasun" eta kulturartekotasun hitzak gehitu beharko lirateke atal honetan.
- ☐ Eredu eleanitzaren alde egitea izan daiteke aukera bat?
- ☐ "Euskara ezagutzak aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa elikatzen ditu". Ideia hori klabea da. Nola, ordea? Identitatea ulertzeko modu berriak garatzea beharrezkoa da. Eta horretarako beharrezko baliabideak (pertsonalak eta bestelakoak) bermatu beharko dira.

- ☐ Hizkuntza ereduak gainditu behar dira eta euskararen murgiltze eta mantentze sisteman oinarritzen den ikas-eredu bakarra ezarri

- ☐ Euskal curriculuma aipatzea beharrezkoa da: ez da nahikoa euskal hiztunak izatearekin. Euskara bakarrik ez, euskal kultura ezagutzeko bermea ere eskaini behar du.

- ☐ Euskaran eta euskal kulturan murgiltzea helburu partekatua dela aipatzen da. Baina berez ez da tresnarik potenteena, eta hainbat kasutan ere kohesiorako oztopo izaten da. Euskara ez ezagutzeak, edo ikasleak behar adina ez prestatzeak ikasketa-maila bat bermatu gabe, ikasleak Euskal Herritik alde egitera behartzen ditu lan egitera.

- ☐ Hausnarketa sakona egin behar da: euskararen ezagutzak aukera berdintasuna badakar euskara benetan batzeko tresna al da? Lehen euskarak egiten gintuen euskaldun, orain beharbada ez. Egungo errealitatea ezin da ukatu.

- ☐ Gaia modu "esanguratsuan kudeatu" beharra sumatzen da. IAP metodologia puru eta dinamikoan.

- ☐ Sintesiaren planteamenduak inplizituki euskara vs. besteak erakusten du. Uste da aliantza terminoetan interesgarriagoa izango litzatekeela, beti ere euskararen zaurgarritasuna aintzat hartuz.

## ERRONKAK ATALA

### ➢ <u>**Gizartearen inplikazioa**</u>

#### Adostasunak

- ☐ Ahots desberdinei tokia egitea, desberdintasunak ezagutzeko, ezinbestekoa da.

- ☐ Konponbide "integrala" behar da. Esparru ezberdinetan. Erronkak sozialak (familiarrak), laboralak (hezkuntza sistemako langileekin), demografikoak… dira.

- ☐ Gizarte osoaren inplikazioa bermatzeko diagnostiko partekatua (ez bakarrik hezkuntzarena), eta helburu partekatuak, ebaluazio partekatuak,… behar ditugu.

- ☐ Gizartearen inplikazioa bai, baina norberak bere eginkizunak ahaztu gabe. Egoera horiek bizi dituztenak eta horri buruz dakitenak aktiboki entzun behar ditugu.

- ☐ Kolektibo segregatuen ahotsa entzutea garrantzitsua da: familiak, ikasleak…

#### Desadostasunak / Testuan egokitzekoak

- ☐ Gizartearen inplikazioa baino lehenago gizartearen heziketa behar da.

- ☐ Beharrezkoa da arrakastaren ikuspegi soziala deseraikitzea: arrakastak oinarrizkoa izan behar du, mundu guztiak lortu behar duena, ez asmo akademiko zehatzak.

- ☐ Bestalde, gizarte-kohesioa eskolatik kanpo ere landu behar da: eskolatik kanpoko parte-hartzea beharrezkoa da.

- ☐ Fokuak boterean eta pribilegioetan egon behar du: ditugun botere eta pribilegioez hitz egiten hasi behar dugu eta aztertu.

- ☐ Egiturazko aldaketak behar dira, ez neurri zuzentzaileak: hezkuntza publikoa lehenetsi eta erdigunean jarri behar da, eta dualtasuna gainditu.

- ☐ Nori eman behar zaio bereziki ahotsa? Argitzeko eta adosteko beharra.

- ☐ Nola egiten diegu tokia ahots ezberdinei? Ze elkargune ditugu horretarako?

- ☐ Gizartearen inplikazioa bai, baina horretarako zein gizarte mota eraiki nahi dugun jakitea beharrezkoa da. Gizarte inplikazioa zerbaiten ondorio izango da: pedagogia politikoa, hezkuntza praktika berrietarako aukerak irekitzea sistema berrantolatuz...

- ☐ Jendarteko ahots ezberdinei beren tokia emateko lidergo eta koherentzia politikoaren beharra.

- ☐ Testuan ardura hitza falta da. Askotan eskatzen dugu, baina ez ditugu ardura hartzen.

## ➢ Lidergo politikoa

### Adostasunak

- ☐ Lidergo partekatuaren bidez zerbitzu publikoa azpimarratuz, guztien artean eta baliabideak eskainiz, erantzun egokiak bilatzen joan behar gara.

- ☐ Erakunde publikoen ardura da eta beharrezkoak diren baliabideak bideratu behar dira.

### Desadostasunak / Testuan egokitzekoak

- ☐ Ezinbestekoa da lidergo politikoa desberdintasun-egoera gainditzeko. Ausardia behar da arauak eta egiturak, legeak, proposamenak, berrikuspenak... egin eta aldatzeko. Une aproposa da errealitatea beharrekin bateratzeko. Gainera, kolektibo segregatuek inplikatuta behar dute egon.

- ☐ Bilakaera demografikoaren aferari garrantzia handia ematen zaio testuan, baina hori gai koiunturala da, ez arazoaren fokoa.

- ☐ Borondate eta ausardia politikoa behar da, interes partikularrekin orekak egin gabe. Horren aurrean, zalantza sortzen da ea benetan gaia lehentasunezkotzat ote dugun.

- ☐ Datu eta analisi zientifikoetan oinarritutako erabakiak hartzea beharrezkoa da. Politika publiko ausartak baino beharrezko eta derrigorrezkoak falta dira, giza eskubideei lotuta. Politikariek izan behar dute lidergoa, baina beti adituak alboan dituztela. Politika errealitatean busti behar da.

- ☐ Hartzen diren erabakien jarraipena egiteko neurri zuzentzaileak eta kontrola beharrezkoak dira.

- ☐ Hezkuntza politikariengandik aldendu behar da.

- ☐ Erakunde publikoko sailen arteko zubi-lanaren beharra.

- ☐ Izenburua egokitzeko zenbait proposamena: lidergo politiko partekatua, erakunde publikoen lidergoa.

## ➢ **Kulturartekotasuna**

### Adostasunak

- ☐ Euskarak lotura gune izan behar du.

- ☐ Euskalduntze integralerako prozesua sustatu behar da eta hori segregazio egoera gainditzeari lotu.

### Desadostasunak

- ☐ Kulturartekotasuna ez da erronka, egoera da. Erronka aniztasuna da, horregatik, kultur aniztasuna edo kultur aniztasun handiagoa erabili beharko litzateke. Kulturaniztasunaren bitartez kulturartekotasuna kudeatuko da.

- ☐ Hezkuntza sisteman atzerakadak eman dira baliabideetan, inplikazio mailan (eskala guztietan), eta nekea nabari da. Horregatik, sentibera izatetik neurriak hartzera pasatzeko unea da. Hitz hori ("sentibera") testuan egokitzea beharrezkoa da, konnotazio paternalista eta ez-nahikoak dituelakoan: desberdinekiko begirunea, elkartasuna...

- ☐ Euskalgintzaren begirada osatzea beharrezkoa da: euskararentzat beste hizkuntza txikiak "mesede" dira. Norabide horretan egin behar zaie lekua.

- ☐ Atzerritik datozen pertsonen kopurua goraka doa, asko ikasi dugu fenomeno honen inguruan baina ikasitakotik gutxi aplikatzen dugu egunerokoan. Ditugun beharrei erantzuteko egokiak diren baliabideak behar ditugu: espezializatutako profesionalak lehen lerroan lan egingo dutenak. Horretarako formakuntza ezinbestekoa da.

- ☐ Hezkuntza sistema nazionala egituratzea beharrezkoa da erronka horri aurre egiteko.

- ☐ Eskolak harrera gune integrala izan behar du, eta saretzeko espazioa. Haurrez gain familiak ere artatu behar dira, haiek batera prozesuak aurrera eraman.

- ☐ Kulturartekotasunaz ari garenean ez dugu soilik hizkuntzan geratu behar, haratago doa.

- ☐ Hezkuntza sistemak ez du gizartea euskaldunduko, euskaldundu nahi duen gizarte bat behar dugu.

- ☐ Euskarara heltzea ondo legoke, baina hura esentzia gisa hartu gabe.

- ☐ Kulturartekotasunaz gain, feminismo intersekzionalaz ere hitz egin behar da, eta irakasleak gai horiei buruz trebatu.

## ➢ **Formakuntza**

### Adostasunak

- ☐ Etorkizuneko irakasleak formakuntza behar dute aniztasuna eta arrazakeria kudeatzeko.

- ☐ Sektore guztien sentsibilizazioa behar da, familiak barne (familia eredu ezberdinak eta anitzak aintza hartuta, eta formazio hori beren behar eta errealitateetara egokituta).

- ☐ Unibertsitatearen laguntza interesgarria da, oso.

- ☐ Praktika onak badaude, bildu eta transmititu egin behar dira jakituriarekin batera. Formakuntza badago baina profesionalizatu egin behar da eta Hezkuntza Sailak kontratazioak egin behar ditu espreski gai hauei erantzuna emateko: hizkuntza alorreko adituak kulturartekotasunean formatuak, segregazioari aurre egiteko mekanismoak garatuko dituzten adituak…formakuntza integral eta transbertsala.

Desadostasunak / Testuan egokitzekoak

- ☐ Irakasle eta hezitzaile guztien formakuntza eta sentsibilizazioa beharrezkoa da. Ikasketa-prozesua errazteaz arduratzen diren pertsonei maila altuagoa, bikainagoa eskatu behar zaie. Alde horretatik, beharrezkoa da erredakzioa fintzea: familiek trebatuta egon behar dute, baina familiek eta irakasleek duten erantzukizun-maila ezin da parekatu. Irakasleen prestakuntzak lehentasuna izan behar du. Zuzendaritza-taldeen kasuan ere bai.

- ☐ Den-denak formatu behar dira: erakundeak, politikariak, administrazioa, hezkuntza ez-formaleko hezitzaileak, zerbitzu publikoetako teknikariak… Formakuntza horrek kritikoa eta autokritikoa izan behar du.

- ☐ Hezkuntza fakultateak funtsezkoak dira, irakats ditzaten funtzionatzen duten esku-hartzeak, berme zientifikoa dutenak.

- ☐ Eskoletan plangintzak zuzendaritza taldeek eta irakasleek egin ohi dituzte eta eskura duten jakintza eta baliabideekin aurrera eramaten dituzte: eremu horietan osatzeko aditu/talde/espezialistak beharrezkoak dira.

- ☐ Komunikabide denak (telebista, irratia, sare sozialak...) ere, itun sozialaren parte izan behar dira, nahitaezko baliabide garrantzitsuak dira.

- ☐ Eskolan egiten duguna, erabiltzen dugun materiala, darabiltzagun metodologiak, ematen dugun iruditegia… errebisatzea beharrezkoa da.

## ➢ <u>**Gobernantza partekatua**</u>

Adostasunak

- ☐ Kultura aldaketa beharrezkoa da, saretzetik haratago joan behar du gobernantza partekatuak: aholkua emailetik, erabaki-gune izatera pasa behar da; erabakiguneak deszentralizatu behar dira, udalerriak indartuz.

- ☐ Auzo eta herrien eskalari eskumenak zabaldu behar zaizkio planteamendu eta kudeaketa komunitaristagoetara joaz.

Desadostasunak / Testuan egokitzekoak

- ☐ Terminologikoki desberdintasuna kendu eta desberdinkeria hobestea proposatzen da, horrek aditzera ematen baitu desberdintasunaren zentzu aberasgarria.

- ☐ Atal hau gobernantza partekatua eta tokikotasuna puntuen artean bereiztea interesgarria litzateke, edo bestela tokian tokiko gobernantza partekatua izendatzea.

- ☐ Udalen papera:
  - o Udalen zeregina erabakigarria da gobernantza partekatua errazteko erakunde hurbilenak diren aldetik.
  - o Ikastetxeei baliabideak erabakitzeko eta kudeatzeko ahalmena bermatu behar zaie.
  - o Tokian tokiko neurriak hartzeko gaitasunak izan behar ditugu, ez soilik konpromiso politikoa eskatu.
  - o Udaletxe eta administrazio maila ezberdinetan eskumenak banatu behar dira, elkarlana argitu eta sistematizatu.
  - o Tokiko errealitatean, tokiko instituzioak (udalak) gehi bertako eragileak (denak) partekaturiko gobernantza gune bat sortu, loteslea dena.

- ☐ Familien parte hartzea:
  - o Familien parte-hartzea da erronka nagusia: bereizi egin behar dira ikastetxeetako gobernantza eta gobernantza orokorra. Familiek lehentasunezko parte-hartzea izan behar dute lehenengo kasuan, eta ikasleen parte-hartzea ere garrantzitsua da.

- ☐ Gizarte-eragileak:
  - o Gizarte-eragileek gizartean parte hartzea ere garrantzitsua da: erabakiak hartzen parte hartu behar dute. Baliabide publiko guztien artean sarea sortu beharko litzateke.
  - o Eskolaz kanpo aisialdi eskaintzan arreta jarri behar da eta horren inguruko ardurak zehaztu.
  - o Sortu daitezkeen talde eta eragileei (auzo elkarteak, aisialdi elkarteak…) erabakitzeko eskubidea eman.
  - o Auzo herrietako topagune hauek hezkuntza komunitatearekin harremanetan jarri ahal izateko, hezkuntza era zabalean ulertuta osatu behar dira aipatutako elkarguneak. Udalek protagonismoa behar dute elkargune horien lidergoan.

## ➢ <u>Bestelako proposamenak</u>

- ☐ Oro har, uste da 5 erronken ordenak dokumentuan desberdina izan behar duela: lehena lidergo politikoa izan beharko litzateke, gero formazioa, gero gobernantza partekatua, gero gizartearen inplikazioa eta, azkenik, kulturartekotasuna.

- ☐ PROPOSATZEN DA 3.6 ERRONKA GEHITZEA: EREDUAK/ ADIBIDEAK/ ESPERIENTZIAK JASO, SITEMATIZATU ETA ESKURA JARRI (DIFUSIOA, ZABALDU, EZAGUTARAZI….)
  - o Erdietsi nahi den helburua (diagnostikotik abiatuta) adostea, enpirikoki neurtu daitekeena (1.4. puntuarekin lotuta dago).
  - o Erronka guztien oinarriak: ebidentzia zientifiko eta eraikitako eztabaidak eta proposamenak (batez ere inpaktu sendoa duten horietan).
  - o Norbanakoaren ardura lantzea ere erronka bat da.
  - o Aniztasunaren zabaltze komunikatiboaren erronkari aurre egiteko tresnak berrikusi behar dira.

- o Ikerketa faltan bota izan da, erronka guztien oinarrian egon beharko luke (beharbada formakuntzarekin batera izan liteke). Hartzen diren erabakiak, egiten diren esku-hartzeak ebaluatzeko eta diagnostiko finak eskura izateko.

## 5.2 Sintesi dokumentuan identifikatutako erronkak kudeatzeko proposamenak

### HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA

*Zer egin beharko litzateke erronka kudeatzeko?*

- ☐ Hezkuntza zerbitzu publikoa da eta horrela ulertu behar da
  - o Ikasleak baliabidez hornitu behar dira hezkuntza igogailu soziala izan dadin aukera-berdintasuna bermatzeko.
  - o Egungo hezkuntza antolaketa, ituntze-unibertsala gainditu behar da, eskola publikoa ahaldunduz.
  - o Baliabide horiek nahikoak izan behar dute, denboran egonkorrak, eta beste zerbitzu batzuekin koordinatuta egon behar dute.
  - o Itunpeko ikastetxeek pentsatu behar dute nola bermatu zerbitzu publiko hori.
  - o Erabaki-hartzeen oinarrian ikasleen hezkuntza eskubideak bermatzea egon beharko litzateke.

- ☐ Birpentsatu egin behar da disgregatzen duen erakunde-eredua (zatikatua, herri-eredu batetik urruntzen gaituena), espazio partekatuetara pasatzeko. Gaur egun, sail bakoitzak bere baitan lan egiten du eta ez du modu partekatuan lan egiten. Euskal Herriko erakundeen arteko harremanak birpentsatu behar dira.

- ☐ Hezkuntza proiektuak berrikusi behar dira: zein filosofia duten, zertarako diren… Hezkuntza proiektu partekatuak behar dira, tokian tokiko lidergo partekatuak eraikitzeko eta konfiantza saretzeko. Ikas-komunitateak eta antzeko ekimen berritzaileak, eredu propioa oinarri dutenak bultzatu behar dira. Ikastetxe bakoitzak bere tokiko proiektua izan behar du hezkuntza berdintasunerako. Horretarako, beharrezkoak dira:
  - o Baliabideak (ez ekonomikoak bakarrik).
  - o Ikastetxeek autonomia izan behar dute baliabide horiek kudeatzeko.
  - o Estrategiak.
  - o Deszentralizazioa.
  - o Neurri zuzentzaile eta lotesleak, kontrol mekanismoak.
  - o Denbora gehiago.
  - o Lan baldintzak (lan-hitzarmenak).
  - o Doakotasuna.
  - o Finantzazio eredua.
  - o Unibertsitatearen munduarekiko harremana sustatzea.
  - o Eragileen inplikazioa: eskolak/ikastetxeak, udalak, hezkuntza-saila (hezkuntza-administrazioa).
  - o Diagnostiko ona oinarri izatea erabakiak hartzeko.
  - o Ebaluagarri izatea: beharrezkoa da botere publikoek politika publikoak ebaluatzea: administrazioak eta unibertsitateak.
  - o Zuzendariek eta irakasleek babes politiko-ekonomiko-juridikoa behar dute.
  - o Ikerketa eta proiektu pilotu berritzaileak beharrezkoak dira.

- Malguak izan behar dira: jarraipena eman behar zaie eta aldatzen, errealitate berrietara egokitzen joan behar dira.
- Ikuskaritzak egon behar dira proiektuak aurrera ateratzen direla bermatzeko. Horretarako, zuzendaritzen eta langileen egonkortasuna bermatu behar da.

☐ Hezkuntza-itunaren beharra jendartearen inplikaziorako: administrazioak eta gizartea inplikatuko dituen hezkuntza-itun baten bidez lortuko da jendartea inplikatzea (interpelatuta sentitzen da eta konpromisoa onartzen du). Horrek arau-aldaketak eta antolamendu- aldaketak eragin beharko lituzke.
Benetako lankidetza abian jarri behar da, gizarte erronketan, sistemaren erronketan. Bidea elkarrekin egin, batera joan. Horretarako, adibidez, agente ezberdinen arteko konpromiso hitzarmen bat ekimen interesgarria izan daiteke.

☐ Hezkuntza komunitateak sendotu behar dira eta sinergiak eraiki, elkarrekin aritzeko, interakziorako gune partekatuak:
- Lidergoa aitortu zuzendaritzei.
- Harremanak eta gerturatzeak landu.
- Testuinguruak herri proiektuak eskaini.
- Familien eta eskolen arteko zubiak eraiki.
- Parte-hartze kultura zabaldu, gogoeta espazioak sortuz.
- Berritzeguneak eta gizarte zerbitzuak inplikatu.
- Haurren eta gazteen parte hartzeko espazioak sortu.

☐ Hezkuntza sailak malgutasuna eta baliabideak eskaini behar ditu, lan ildo partekatuak ezarriz, ikastetxeen errealitatera egokituz eta tokian tokiko konplexutasun maila aintzat hartuz.

☐ Ezagutzaren transmisioa bermatu: aurretik egin den guztitik abiatu eta praktikak jaso eta transmititu behar dira.

☐ Formazioa beharrezkoa da:
- Zuzendaritzak eta irakasleak profesionalizatu eta lidergoa eman behar
- Profil espezializatuak behar dira eta Hezkuntza Sailak figura profesionalak sortu eta aitortu behar ditu sistemaren baitan, eskainitako postuak erakargarriak izan behar dute.
- Irakasleen figura birplanteatu beharra dago: hasierako irakasleen formakuntza berrikusi behar da eta etengabeko formakuntza zentroak dituen beharrei lotuta egon behar da, ez irakasle bakoitzaren interes pertsonalen araberakoa.
- Zuzendaritzak eta irakasleak egonkorrak eta prestatuak izan behar dira. Ordezkapenak ekidin behar dira.
- Pedagogia dakien jendea behar da ikastetxeetan.
- Unibertsitatea edo kanpoko beste eragile adituen eta irakasle profesionalen artean hartu- emana egon behar da. Irakasleren bati –figura bat sor daiteke horretarako- orduak eman beharko litzaizkioke unibertsitate edo adituekin hartu-eman hori mantentzeko.

*Nork egin beharko luke?*

- ☐ Lidergo politikoa beharrezkoa da: tokian tokiko administrazio burua/gobernu taldearen konpromisoa eta inplikazioa ezinbestekoa da:
  - o Udalen rol protagonista: paradigma aldatu beharra dago: udalek duten arduraren jabe izan behar dute eta beren protagonismoa hartu: "nola lortu gure herriko ikasleen arrakasta?" galderari erantzuna eman behar diote.
  - o Hezkuntza Sailak ditu eskumenak, berak izan behar du lidertza. Unibertsitateekin elkarlana ezinbestekoa da eta eskola komunitate osoak lagundu behar du.
  - o Ikastetxe bakoitzeko komunitateak: eragile sozialak, hezkuntza komunitatea (familiak, haur/gazteak/klaustroa…), sindikatuak, gizarte zerbitzuak…

*Non egin beharko litzateke?*

- ☐ Hezkuntza Sailean.

- ☐ TOKIAN TOKIKO Eremu ezberdinetan (era deszentralizatuan):
  - o ADMINISTRAZIOAN/INSTITUZIOAN.
  - o KOMUNITATEAN: tokian tokiko izaera kontuan hartuz.
  - o ESKOLA-ADMINISTRAZIOA-KOMUNITATEA: proiektu partekatua.

- ☐ Elkarbizitza foroak

*Noiz egin beharko litzateke?*

- ☐ Gure ohiko egituretan presentzia izan behar dute, eguneroko egituratan, erreferentzialtasuna izan dezaten legitimatu.

- ☐ Estrategia partekatu, plazaratu eta ikusgarri behar da. Konplizitatea landu behar da.

- ☐ Epe luzerako begiradarekin, baina ahal bezain pronto.

- ☐ Etengabe, iraunkorki

## GIZARTEAREN INPLIKAZIOA

*Zer egin beharko litzateke erronka kudeatzeko?*

- ☐ Segregazioaren aurkako ituna izapidetu behar dugu jendarte mailan: zabala, herritarra, anitza, parte hartzailea, gertukoa. Ikas komunitateak ahaldunduz, hezkuntzaren balioa jendartean zabalduz, herri mailan lidergo politikoa eta baita orokorrean Eusko Jaurlaritzan ere. Baina inplikazioa lortzeko baliabideak behar dira.

- ☐ Horretarako, lidergo partekatua eraikitzea beharrezkoa da. Gizarte osoak prozesuaren parte izan behar du. Konfiantza behar da. Bakoitzak duen pribilegioari uko egitea dakar. Botere harremanak ekidin, eta benetako lankidetza harremana behar da.

- ☐ Gizartearen eta eskolen arteko sinkronizazioa beharrezkoa da:
  - o Tokian tokiko hezkuntza komunitatearen elkarguneak sortzea.
  - o Ezagutzaren ko-eraikuntzan oinarritutako ikerketa zientifikoa aintzat hartu eta esku-hartzeak horretan oinarritu.

- o Ikastetxeetako ateak ireki jende guztiari, ikasleen hezkuntza prozesuan parte har dezan eta ikasleak komunitatearen parte bihur daitezen.
- o Foroak sortu segregazioa pairatu dutenek ahotsa izan dezaten, sentsibilizazio eta formakuntzarekin batera, ekintzara bideratua.

- ☐ Familia heldu berriei harrera egokia eskaini.

- ☐ Ikasle eta familia heldu berriak entzuteko espazioak bermatu.

- ☐ Herriko elkarte eta entitateen inplikazioa.

- ☐ Euskara eta erdera familia etorkinei eskaini, informatu.

- ☐ Benetakoak eta eraikitzaileak diren esperientziak erakutsiz eta horiek ezagutzera emanez hezitu behar da gizartea. Hitzetatik haratago, errealitatean badiren eta funtzionatzen duten esperientziak, adibideak, erakutsi behar dira, ez bakarrik mezu etiko eta politikoak zabalduz. Esaterako, "Zurrumurruak" ekimenaren gisako dinamikak interesgarriak dira, aurreiritziak deseraikitzeko, ikusgarritasuna emateko eta gizarte mailako proiektu bilakatzeko.

- ☐ Erabakitze indibidualaren "eskubidea" zalantzan jarri behar da eta ditugun pribilegio eta botereen inguruko diskurtsoa landu, guretik hasi behar dugu zalantzan jartzen.

- ☐ Diskriminazio mekanismoak identifikatu behar dira eta fenomenoa ez da naturalizatu behar, eskola segregazioa erabaki politikoen ondorioa da, ez da fenomeno natural bat.

*Nork egin beharko luke?*

- ☐ Pribilegio eta botereen gaia lantzen eragile sozial guztiek hasi behar dute: administrazioak, elkarteek, banakakoek… eta saretzea eta elkarrizketa garrantzitsua da horretan. Komunikabideek ere aurreiritziak deseraikitzeko rol garrantzitsua dute.

- ☐ Diskriminazio mekanismoak identifikatzeko planteamendu sistemikoa beharrezkoa da eta administrazio eta eskola guztiek jardun behar dute. Zapalkuntzak pairatzen dituztenek eta erabakiak hartzeko ahalmena dutenek elkarrekin jardun behar dute. Ahots guztiak prozesuaren parte izan behar dira eta udalek indar potentzial handia dute.

- ☐ Baliabideak administrazioak jarri behar ditu.

- ☐ Jendarte ituna osatzeko, jendarte osoarena da ardura, pertsona guztiena, elkarteak… Sentsibilizatuta dagoen taldeak gidatu beharko luke prozesua.

- ☐ Gainerakoan, hezkuntza fakultateek, ikastetxeek, trebakuntza aritzen diren agente guztiek dute zeresan handia. Baita udalek eta guraso elkarteek ere.

- ☐ Hizkuntzaren gaiaren lanketan euskaltegiek ere zeresana izan dezakete.

*Non egin beharko litzateke?*

- ☐ Tokian tokiko komunitate hurbilean, herriz herri, auzoz auzo. Arazoa nabarmena den herri horietatik hasita.

- ☐ Ikastetxeetan egin behar, baliabideak ziurtatuz.

- ☐ Erakunde publikoetan, unibertsitateetan, ikastetxeetan

*Noiz egin beharko litzateke?*

- ☐ Lehentasuna duen gaia da. Gaurtik hasita eta akordioak lortzeko beharrezko denborarekin

- ☐ Hezkuntza Lege berriaren eztabaida zabalik den marko honetan burutu beharko litzateke. Gainerakoan, legearen babesik gabe oso zaila izango da, oinarrian herri estrategia partekatua eta adostasun soziala daudelako.

## LIDERGO POLITIKOA

*Zer egin beharko litzateke erronka kudeatzeko?*

- ☐ Gardentasuna komunikazioan: lasaitasuna transmititzea beharrezkoa da.

- ☐ Konpetentzien definizio argia egin behar da, lidertza partekatu administrazio eta instituzio ezberdinen artean modu eraginkorrean.

- ☐ Saretze eraginkorrak osatu, konpetentzia konkretuei erantzun ahal izateko eta egitekoak bermatzeko.
    - o Koherentzia eta zubi-lana landu sailen artean, erantzun eta lidergo sendoagoa lortzeko.

- ☐ Gobernuek ausardia behar dute, erabakiak hartzen ausartzea: badakigu zer egin behar den, baina ez da egiten erosotasuna ez hausteko.
    - o Erabaki politikoak oinarri zientifikoan, ikerlanean eta datuetan oinarrituak izatea.

- ☐ Gobernuek, erabakiak hartzeaz haratago, eredugarri ere izan behar dute beren jardunean.
- ☐ Hartu beharreko erabaki horiekiko babes soziala bermatzeko itun soziala izapidetu:
    - o Itun honetan garrantzi berezia dute bai gobernuak bai oposizioko alderdiek, akordio hori gizarte-eragileengana zabal dadin.
    - o Baita komunikabideak ere.
    - o Gizarte osoari, eragile guztiei parte hartzeko deialdia egin eta orekak zein sinergiak bilatu.
    - o Gainera, agenda politikoan lehen mailako gaia dela esan behar da.

- ☐ Sistema publikoaren ikuskera titulartasunetatik haratago ulertu:
    - o Sistemaz eta sistematik kanpo nor geratzen den hitz egitea.
    - o Funts publikoak erabiltzen dituzten sareen arteko lehia gainditzeko.

- ☐ Atzeraldi demografikoak planteatuko dituen erronkak aintzat hartu: baliabideak berrantolatzeko aukera, proiektuarekin lankidetzan aritzeko.
- ☐ Sistemaren kritika erreal eta arrazoitua egin: politika publikoen eragina neurtzea, ebaluatzea, nola gastatzen dugun…
    - o Horretarako, neurri eta adierazle zehatzak eta kronograma zehaztu.
    - o Auditoretzak, ikuskaritzak, transparentzia politikak…
    - o Politikari guztiek zeharka eta arlo guztietan segregazioaren gaia landu beharko lukete: enpleguan, kirolean, genero gaietan, kontziliazioan, etab.

*Nork egin beharko luke?*

- ☐ Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailak protagonista behar dute izan: beste eragileei entzun, lidergoa partekatu, bakoitzaren eskumenak zein izan behar duten zehaztu eta eman…

- ☐ Horiez gain, Osasun sailak, Gizarte gaien sailak, Kultura eta Hizkuntza Politiken sailak, Etxebizitza sailak… presente beharko lukete egon.

- ☐ Oposizioak ere protagonista izan behar du: akordioak beharrezkoak dira, oposizio eraikitzailea beharrezkoa da.

- ☐ Foru Aldundietako eta herrietako politikariek ere ahaldundu behar dute eta protagonismoa hartu. Orokorrean, administrazio publiko guztiek inplikatu behar dute (Udalak, Aldundiak, Jaurlaritza…).

- ☐ Gainerakoan, hezkuntza komunitateak protagonismoa izan behar du lidergoa berrien eraikuntzan eta hezkuntza-itunaren defentsan (hezkuntza formala eta ez-formala).

*Non egin beharko litzateke?*

- ☐ Eskala guztietan:
  - o Euskal Herriko eremu administratibo guztietan: erakunde publikoetan.
  - o TOKIAN TOKIKO "komunitate" hurbiletan (herri/auzo mailan):

- ☐ Herrian

- ☐ Auzoan

- ☐ Komunitatean

- ☐ Hezkuntza ez-formaleko esparruetan

- ☐ Komunikabideetan

- ☐ Erakundeetan

- ☐ Administrazioaren maila guztietan (koordinatuta)

- ☐ Komunitatearekin elkarlana eginez (sozializatu)

- ☐ Itun sozialean

*Noiz egin beharko litzateke?*

- ☐ Hasita egon beharko luke, konpetentzien banaketa ahal bezain azkar egin behar da progresiboki erantzuten hasteko, baina epe luzerako begiradarekin.

- ☐ Hezkuntza Lege berriaren eztabaidan presente egon beharko luke gaiak. Bestela, legearen babesik gabe oso zaila da.

- ☐ Plangintza egin behar da, mugarriekin: epeak jarri, adierazleak jarri, etengabe ebaluatu.

## KULTURARTEKOTASUNA

*Zer egin beharko litzateke erronka kudeatzeko?*

- ☐ Aniztasunaren definizio partekatuta ere adostu behar da, segregazioarenarekin batera.

- ☐ Euskara eta euskal kultura kohesiorako tresna bihurtu.

- ☐ Identitatearen inguruko hausnarketa ere egin behar da, anekdota eta folkloretik haratago:
  - Zer da gaur egun euskaldun izatea?
  - Giza eskubideak eta norbanakoaren nortasuna kontuan eduki eta errespetatu behar dira. Bien arteko oreka behar da eta, ildo honetan, euskara irakasteko estrategiak martxan ipini eta bermatu.
  - Asimilazioa ekidin: etxeko kultura eta hizkuntzen lanketa erraztu

- ☐ Kulturartekotasuna lantzeko balioak definitu eta adostu behar dira:
  - Berdintasuna.
  - Aniztasuna onartzea.
  - Aniztasunekiko elkarreragina.
  - Kulturartekotasunaz ari garenean ez dugu hizkuntzan bakarrik zentratu behar. Atzerriko jatorria duten pertsona horien jakintzak balioan jarri behar ditugu, eta ezagutu behar ditugu. Kapital kulturalari garrantzia eta lekua eman behar diogu.

- ☐ Segregazioari aurre egiteko bitartekoak frogatu behar dira:
  - Pedagogia eta metodologia berriak.
  - Fenomeno sozialak (guraso elkarteak), hirigintza, nortasuna, etab.

- ☐ Ikasgelatik irten eta ikastetxea ekintza-unitate gisa ulertzea beharrezkoa da, eragin eremua berregokitzea:
  - Sistemaren beraren malgutasun handiagoa antolaketan: ikaskuntza pertsonalizatua (adibidez, euskararekin: mundu guztia ez da oinarri beretik abiatzen).

- ☐ Irakasle lanbideari prestigioa eman eta baliabideak bermatu gaiaren kudeaketa egokia egiteko:
  - Behar diren baliabideak bermatu:
    - ✓ Estrategia positiboak ezagutu/ezagutarazi
    - ✓ Irakasleen prestakuntza (ahalduntzea) posible egin: sarbide-sisteman (lanbideari prestigioa emateko, berariazko prestakuntza behar duen lanbide grinatsua izateko) eta irakasleen profil askotarikoak sustatzeko (ikasleentzako erreferentziak).
    - ✓ Unibertsitateak irakasletzako ikasleen prestakuntza-programak berrikusi behar ditu, ez praktikara hain bideratuta, baizik eta hezkuntzaren ikuskera zientifikoan oinarrituta.

- ☐ Familiei harrera prozedurak baliabidez hornitu:
  - Atzerritik datozen ikasle eta familiei harrera integrala egin behar zaie, saretzea lantzeko. Eskola, eta hezkuntza komunitatea behar da izan harrera espazio integrala; eta harrera hau sistematizatu egin behar da.
  - Gizarte zerbitzuetan, asistentzialismoa ekidin, eta beste laguntza zerbitzuak sortu-definitu- adostu… Gizarte Zerbitzuak sendotu.

- ☐ Komunitateen komunitatea irudikatu eta egituratu.
  - Hezkuntza komunitateak gairen inguruko formakuntza behar du: solas guneak sortu, balio sistema partekatua sortu, erabakigune partekatuak, rol eta funtzio anitzak elkarri begira jartzeko, osotasuna irudikatzeko elkarrekin.
  - Sareak sortu.
  - Eskolan benetako autonomia bermatu gaia kudeatzeko.
  - Baliabideak jarri.
  - Planak praktiketara eraman.
  - Legeak eta araudiak berritu/aldatu. Eguneratu.
  - Eskoletan hezkuntza proiektuak aldatu. Pisu handiagoa eman.

*Nork egin beharko luke?*

- ☐ Eusko Jaurlaritzak eta erakunde publiko guztiek dagokien legediak garatzeko ardura hartu behar dute.

- ☐ Udalek paper berezia izan behar dute, markoa eta egituratze prozesurako baliabideak eskainiz. Horretarako, udalen eskumenak sendotzea beharrezkoa da.

- ☐ Hezkuntza komunitateak eta eragile sozialek ere ekarpena egin behar dute.

- ☐ Euskal hedabideek ere ekimena babestearen alde egin beharko lukete.

*Non egin beharko litzateke?*

- ☐ Jaurlaritzatik hasi eta esparru guztietan, eskala guztietan aplikatu behar dira neurri berritzaileak, tokian tokikoraino:
  - Formakuntza koordinatzeko guneak sortu beharko lirateke, maila instituzionalean.
  - Kurrikulumetan malguagoak izan.
  - Eskolaz kanpoko jardueretan.
  - Herri mailako egitasmoetan.
  - Belaunaldi arteko espazioak.
  - Administrazioan.
  - Herrigintzan.
  - Eskolan, herriarekin batera.
  - Ekintza kulturaletan.
  - Udalen parte hartzea garrantzitsua.
  - Komunitatean (denbora librean, udalean, kalean, auzoetan...).

*Noiz egin beharko litzateke?*

- ☐ Plangintza eta aurrekontua izan bezain laster.

- ☐ Premia larriko egoera eta erantzuna eskatzen du gaiak, haurrak etengabe badoaz eta badatoz.

## FORMAKUNTZA

*Zer egin beharko litzateke erronka kudeatzeko?*

- ☐ Formakuntza administrazioko langile publikoei: espezializazio/profesionalizaziorako formakuntza eskaini behar da:
  - Sortu behar dira segregazioari aurre egiteko figura espezializatuak etapa bakoitzari eta behar bakoitzari egokituak.
  - Gainera, erreferente diren figuren jakintzaren transmisioa ere bermatu behar da (jubilatzean errelebo kontratuak…).

- ☐ Formakuntza irakasleei:
  - Unibertsitateko ikasketa guztietan, baina bereziki Magisteritzan, aniztasuneko formakuntza bermatu beharko liekete ikasle guztiei. Ikaskuntza jarraiari ere garrantzia eman behar zaio, irakasleak une oro formatu daitezen.
  - Horrez gain, irakasleak ebaluatzeko tresnak garatu beharko lirateke.

- ☐ Formakuntzaz gain SENTSIBILIZAZIOA (errealitatearen ezagutza) ere bermatu behar da gizarteko sektore ororentzat, beste esperientzia positiboetatik ikasiz eta norberaren testigantzak partekatuz:
  - Gizartea bere osotasunean hezi behar da: familiak.
  - Hezkuntza komunitateak elkarrekin landu behar ditu: formakuntza, kulturartekotasuna…: komunitateen komunitatea irudikatu eta egituratu.
  - Komunikabide guztiak sentsibilizatu behar dira.
  - Solas guneak sortu: "denak ez du balio" ideiapean, balio sistema partekatua sortu.
  - Gune partekatuak, rol eta funtzio anitzak elkarri begira jartzeko, osotasuna irudikatzeko elkarrekin.
  - Norbanakotik, kolektibora: praktikatik abiatuta eta plano pertsonala landuz, praktika eta teoria uztartu. Inplikazio kolektiboa eta norbanakoko inplikazioa eskatu behar da, pertsonak bere hutsuneak gainditzeko. Norberaren interesen eta beharren araberako formakuntza.

*Nork egin beharko luke?*

- ☐ Euskal Herriko unibertsitate guztiek, publiko nahiz pribatu, etorkizuneko irakasleak formatu behar dituzte, Hezkuntza Sailaren eskutik eta laguntzarekin.

- ☐ Administrazioko langileen formakuntzari eta jakintzaren transmisioari dagokionez, administrazioak landu behar du, Eusko Jaurlaritzak.

- ☐ Komunikabide guztiek: telebistak, irratiak, egunkariak, Internet, sare sozialak, etab. Haiek ere propio jaso behar dute formakuntza.

- ☐ Udalek paper berezia izan behar dute, markoa eta egituratze prozesurako baliabideak eskaintzeko, komunitateari, herriari eta familiei begira. Horretarako, beharrezkoa da udalen eskumenak sendotzea.

*Non egin beharko litzateke?*

- ☐ Espezialistaren figuraren sorrera unibertsitateetan eta erakundeetan (modu sistematizatuan).

- ☐ Administrazioko langileen formakuntza lantokietan.

- ☐ Jakintzaren transmisioa eskola/unibertsitatea/lantokietan egin behar da errelebo kontratuen bidez.

- ☐ Norbanakoak gertukoen dituen guneetan edo ezagutu nahi ditugun guneetan.

- ☐ Toki espezializatuez gain (unibertsitate, lantoki…) ikastaroetan, espazio partekatuetan, indibidualki…

- ☐ Dinamika komunitario sendoagoak behar dira. Eta dinamika horrek erakundeen dinamikari lagundu behar dio.

- ☐ Eskolan espazio informalak sortzea interesgarria litzateke, familien esku espazio formatibo eta ludikoak jarri beharko lituzkete eskolek. Eraikin publikoak gizartearen esku egon beharko lirateke, auzoetako zentro kultural izan beharko lirateke eta kolektibo zaurgarrienen esku egon beharko lukete.

*Noiz egin beharko litzateke?*

- ☐ Espezializazioak eta formakuntzak hasita egon behar luke.

- ☐ Jakintzaren transmisioarekin orain has gaitezke eginda eta dagoena transmititzen.

- ☐ Etengabe, era sistematiko eta jarraituan.

- ☐ Berehala, urgentea da.

## GOBERNANTZA PARTEKATUA

*Zer egin beharko litzateke erronka kudeatzeko?*

- ☐ Herriarentzat, herriarekin gobernatu:
    - Auzoak eta herriek erabakitzeko eskubidea izan behar dute.
    - Eskolek erabakiak inguruko kolektiboekin hartu behar dituzte, sareak sortuz, eragina izan dezaten.
    - Udalek eta aldundiek ere garrantzia dute, eta dagoeneko dauden egiturak kontuan izan behar dira, eragileekin dagoeneko dauden sareak baliatu behar dira.
    - Eragileen parte hartzeak eragina izan behar du.
    - Auzoetan aniztasuna egon behar da, eta hori etxebizitza sozialekin lortzen da.

- ☐ Udalen papera: koordinazioa:
    - Udalak eta ikastetxe guztiak Udal hezkuntza foroa osatu beharko lukete, erabakigunea dena. Bertan hartutako erabakiak lotesleak izan behar dira.

- ☐ Baliabideak definitu behar dira eta horien birbanaketarako neurriak hartu behar dira. Lidergo politikoak eta gobernantza partekatuak eskutik helduta joan behar dute. Horretarako, kultura demokratikoa sustatu behar da, erabaki partekatuak, alegia.
- ☐ Tokian tokiko eskumenak banatu, zehaztu eta definitu behar dira, deszentralizazioaren aldeko apustua eginez. Administrazio eta erakunde bakoitzak dituen zeregin eta ardurak argitu eta banatu behar dira. Partekatze politikoa ziurtatu behar da.
    - Eskolaz kanpoko jarduerek sortzen dituzten ezberdintasunetan fokoa jarri behar da. Baliabide berdinak ematen zaizkie errealitate oso ezberdina duten errealitateei. Argitu behar da noren ardura den horiek kudeatzea.

- Horretarako guztirako komunitatea formatzea, inplikatzea eta benetako esperientzia eraikitzaileak zabaltzea beharrezkoa da.
- Hezkuntza Sailak eredu publiko/pribatua argitu behar du, ezin dira neurri berdinak ezarri ezberdinak diren egoeretan eta horiek aplikatzeko programak eta dirulaguntzak argitu behar dira.

- ☐ Boto eskubiderik ez duten pertsonei ahotsa eman behar zaie, ahalik eta jende anitzenaren parte-hartzea sustatzeko hezkuntza segregazioa gainditzeko prozesuan.

*Nork egin beharko luke?*

- ☐ Lidergoa: Udalak (markoa eta egituratze prozesurako baliabideak) eta hezkuntza sailak (ikuskaritza, delegaritza)

- ☐ Hezkuntza komunitateko gainerako agenteen inplikazioa ere beharrezkoa da:
  - Herri/auzoetako elkarte ezberdinak
  - Mugimendu sozialak
  - Irakasleak
  - Gurasoak
  - Sindikatuak
  - Gazte foroak: parte-hartzearen kultura bultzatuz

*Non egin beharko litzateke?*

- ☐ Esparru guztietan hezkuntzan lanean ari direnen lan-baldintzak egokitu behar dira: egutegiak, ordutegiak, formazioa, disponibilitatea, soldatak…

- ☐ Tokian tokiko (herrietako/auzoetan) guneak sortzea beharrezkoa da.

*Noiz egin beharko litzateke?*

- ☐ Berehala eta etengabe

## 5.3 Segregazioaren lanketa etorkizunean

Saioa borobiltzeko, plenarioan parte hartzaile guztiei eskatu zitzaien hausnartzeko etorkizunean segregazioaren lanketak eskatzen dituen neurrien eta norbanako eta eragileek duten konpromiso mailaren inguruan.

Horretarako Mentimeter tresna baliatuta hainbat galderari erantzuteko eskatu zitzaien: segregazioaren gaia lantzen jarraitzea beharrezkoa dela uste ote zuten; etorkizuneko lanketa horretan parte hartzeko prestutasuna ote zuten; eta zer egiteko prest leudekeen.

Lehen bi galderekiko adostasun eta konpromiso maila altua izan zen, oso, eta parte hartzaile guztiek hobetsi zuten gaia lantzen jarraitzea beharrezkoa zela, mugikorraren bidez emandako erantzunak zein izan ziren erakusten duen grafikan ikus daitekeen moduan:




Bakoitza egiteko prest legokeenaren inguruan, berriz, honakoak izan ziren bildutako erantzunak, jaso moduan:

- ☐ Maila lokalean, eskolan, auzoan, beste eragile batzuekin horrelako gunean sortzeko
- ☐ Zestoan hasi berri dugun lanketa konpartitzeko
- ☐ Trabajar con la comunidad educativa en los propios centros estos temas.
- ☐ Itun soziala beharrezkoa da erabaki politiko ausartak egin ahal izateko
- ☐ Contraste de propuestas
- ☐ Horrelako saioetan parte hartzeko, dokumentuak irakurtzera eta iradokizunak egiteko prest.
- ☐ Kontzientzia garatu arazo honen inguruan nire inguru pertsonal eta profesionalean.
- ☐ Elkarrizketa foroetan parte hartzeko
- ☐ Gure eguneroko praktika. Segregazio kasu erreal batean egiten dugun lanaren esperientzia
- ☐ "Herri eta eskola desberdinetako esperientziak partekatu.
- ☐ Udalekin batera lan egitea"
- ☐ Eusko Ikaskuntzarekin jarraitu lanean
- ☐ Eskola-komunitate proiektu partekatuak diseinatzen laguntzeko

- ☐ Erakundean halako foroak antolatu
- ☐ Martxan jarritako esperoentziak partekatzeko
- ☐ Participar en el desarrollo de propuestas
- ☐ "Ikasle atzerritarraren gurasoaren betaurrekoekin
- ☐ ekarpena egiteko."
- ☐ Tokian tokiko hezkuntza elkarguneak osatzeko planteamendua eta metodologia garatzeko prest egongo ginateke
- ☐ Itun sozialean parte hartzeko prest
- ☐ Nire antolakundearen lanaren baitan gai honekiko konpromisoa eta praktikaren bide.
- ☐ Unibertsitatetik errealitate honen inguruan ezagutza bultzatzea
- ☐ Nire erakundean segregaziaoaren gaia lantzea
- ☐ Euskal komunitate kulturartekoaren partaide eta eragile (tokian toki eta instituzioetatik)
- ☐ Hezkuntza feminista, euskaldun, antiarrazista eta komunitario baten alde militatzen segi.
- ☐ Tokiko erakunde eta eragile sozialak, politikoak eta hezkuntza eragileekin elkarlana sustatu eta parte hartu
- ☐ Parte hartzen dudan beste foro batzuetan prozesu honen berri eman
- ☐ Gobernuak astindu behar du hezkuntza sistema goitik behera
- ☐ Elkarrekin, zubigintzan eta konpromisoan aurrera egin
- ☐ Gazte subjetu bezala ikuspegia konpartitzeko, itunean islatuta eta txertatuta egotea berma dadin
- ☐ Saio honetik aterako den dokumentuarekin lan egiten jarraitzea...
- ☐ Esperientzia zehatzak entzuteko eta haiengandik ikasteko prest. Eredu onak sakonki ezagutu
- ☐ Unibertsitate ikasleekin partekatze eztabaida kolektibo hau
- ☐ Gazteak parte-hartze kulturan hezitu
- ☐ Revisión de currículum y formación del profesorado

- ☐ Hezkuntza sistema eraldatzeko, tokiko errealitateetan arreta jarriz. Langileen ahotsa ezagutaraziz

- ☐ Euskal kurrikuluma ikuspegi eta posizio ezberdinetako kideekin osatu eta garatu

- ☐ Horrelako saioetan parte hartu, nire lanean aukera dagoen neurrian agendan mantendu gaia, harreman pertsonalean Alden neurrian hausnarketara lagundu

- ☐ Lege berriak ze neurri zehatz aurreikusten dituen ezagutu

- ☐ Hitzarmenak bideratu udal eta eragile dozial guztiekin

- ☐ Disponibilitatea. Neurri zehatzen proposamenetan sakondu, hauen jarraipena egiteko. Horrelako espazio bat proposatu parte hartzaileen aniztasuna gehiago sustatuz.

- ☐ Incorporar la mirada feminista interseccional, desde una perspectiva gitana

- ☐ Horrelako foroetan parte hartu eta nire erakundetik gai honetan sakondu

- ☐ Gune erdaldunduetako ume euskal hiztunen errealitatea ere presente izateko gogora arazteko.

## 6. ERANSKINAK: LAN-TALDE BAKOITZEAN LANDUTAKO EDUKIEN AKTAK

Txostenaren azken atal honetan lan-talde bakoitzean landutako edukiak biltzen dituzten aktak kontsulta daitezke, dinamizatzaile bakoitzak osatu moduan (itzuli, multzokatu edo sintetizatu gabe).

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

**MAHAIA:** UROLA

**1.ariketa: adostasunak, desadostasunak eta horiek kudeatzeko ideiak**

**OROKORREAN DESADOSTASUNA:**

- Terminologia zehaztu eta definitu behar da, terminoen atzean zer dago? Zer esan nahi dugu? Irakurketa partekatua izan dadin beharrezkoa da. Zenbait termino modu ezberdinean erabiltzen dira testuan zehar eta kontraesankorra izan daiteke.
- Aldagai bakoitza behin eta berriro errepikatzea ez da beharrezkoa, intersekzionalaren txapelaren azpian sar daiteke, hau behin definituta.
- Erredakzioari dagokionez, erredakzio mota positiboarekin idaztea lehenesten da.
- Kultura terminoarekin zalantzak sortu dira: hitz egin al dezakegu "kulturaz" edo kultura globalaz hitz egin beharko genuke? Kultura bakarra al dugu lurraldeari lotuta? Identitate multipleak…

| | | Adostasunak | Desadostasunak |
|---|---|---|---|
| **EZAUGARRITZEA** | 1.1. Segregazioaren definizioa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Ez da segregazioaren definizioa, eskolatze segregatuaren definizioa baizik.<br>- Hizkuntza eredua aipatu behar da, testuinguru soziolinguistikoa oso garrantzitsua da testuinguru honetan. *Elementu segregatzailea al da hizkuntza eredua?*<br>- Publiko/pribatu ardatza gehitu behar da definizioan, eta baita hautatzeko aukera/eskubidea afera ere. Hala ere, segregazioa ez da soilik publiko/pribatu artean ematen, eskola eredu berdinen artean ere ematen da, edo batzuetan eskola beraren barruan (gela bat A ereduan eta besteak D ereduan). Hori ere kontuan hartu behar da.<br>- *Zalantza: bereizketa guztiak al dira segregatzaileak?* |
| | 1.2. Ondorioak | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Heziketa bera helburua bezala jarri behar da, helburua ez da soilik gizarte kohesioa.<br>- Berdintasunerako funtsezkoak diren eskubideetan jarri behar dugu fokoa: ondorio larri eta sakonak sortzen dituzten horiei hezkuntzatik eta gizartetik erantzun behar zaie. Lehentasuna da galtzeko duten horiei egoera aztertzea. |
| | 1.3. Kausak | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Kausak sinplifikatzen dira: ahalegina egin behar da konpromiso gehiago hartzeko, gaia zehaztu behar da eta lurrartu. Mami gehiago behar du. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | - Kontuz ibili behar dugu arduraren fokoa kanporatzearekin: hezkuntzak bakarrik ezin du baina hezkuntzatik asko egin daiteke. Hezkuntza Sistema bera da segregatzailea bere egituran eta sisteman. Proiektu pluraltasuna bilatu baino pluralak diren proiektuak bilatu behar ditugu.<br>- Hezkuntza sistemaren arazoak ez dira soilik sistema neoliberalaren ondorio, sistema neoliberalaren tresna da hezkuntza sistema.<br>- Ezin da ardura soilik gizarte mailan jarri, gizartearen inplikazioa garrantzitsua izan arren. Eusko Jaurlaritzako hizlariak “hezkuntzakoak gara” esan du, baina Eusko Jaurlaritzak gai anitzetan ditu eskumenak ez soilik hezkuntzan, eta neurriak transbertsalak izan behar dute, eskala ezberdinetan, administrazio ezberdinetan eta Eusko Jaurlaritza barruan.<br>- Fokoa ezberdintasunetan jartzen dugu eta berdintasunei lekua egin behar diegu, aniztasunari balioa eman behar diogu.<br>- Pribilegioez hitz egin behar da. |
| **ITUN SOZIALA** | 1.4. Diagnostikoa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Harritu egin gaitu diagnostikoa behar dela esateak: diagnostikoa badago, eskolatze segregatua aztertu da jada, orain neurri zuzentzaileak hartu behar dira.<br>- Neurtu non kokatzen garen eta egiten dugun lan hori jarraitu eta ebaluatu.<br>- Hezkuntza Sistemaren arazo orokorra DA eskolatze segregatua, eta hezkuntza sistemak betikotu egiten du.<br>- |
| | 2.1. Helburu orokorra | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Benetako aukera berdintasuna zer da? Definitu egin behar da, tranpa izan liteke<br>- Itunari berari garrantzia handiegia ematen zaio, iparra izan behar badu ere eta ituna egotea lehenesten bada ere funtsezko eskubideak bermatu behar ditugu. Pribilegioak zalantzan jarri behar ditugu, bakoitzak bere ardurak bere gain hartu behar ditu eta eskubideez hitz egin behar dugu, eskubide urraketez.<br>- Botere publikoak bere ardurak hartu behar ditu eta eginbeharrak aurrera eraman: eskubide urraketekin amaitu behar da, hori da lehentasuna. |
| | 2.2. Hezkuntzaren eginbeharra | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Ikasle eta familiez hitz egiten da baina fokoa zabalagoa da: hezkuntza komunitateaz hitz egin behar da ikuspegi ezberdinak kontuan hartuta.<br>- Ardura Hezkuntza Sailarena da, erantzunkizun handia du. Mekanismo segregatzaileak aldatu eta baztertu behar ditu, hori da bere eginbehar nagusia. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | - Eskuhartzeak ikastetxe bakoitzean egin behar dira baina saretuta, bestela oso bakartia da. Auzoan, herrian… asko mugatuko da bestea eskuhartzearen eragina eta ahalmena. |
| | 2.3. Euskara oinarri | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | --- |
| **ERRONKAK** | 3.1. Gizartearen inplikazioa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Ongi dago bazterkeriaren aurka eta kontzientzia sortzearen alde aritzea baina ausartagoak izan behar dugu eta aurrera pausu bat eman: ditugun botere eta pribilegioez hitz egiten hasi behar dugu eta aztertu. Fokoak boterean eta pribilegioetan egon behar du.<br>- Gizartearen inplikazioaz ari garenean aztertu behar da ze perfilen bila ari garen: nork du denbora, gaitasuna, baliabidea, ahotsa… horrelako gaietan inplikatzeko? Ausenteak zein dira? Zergatik? |
| | 3.2. Lidergo politikoa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | Desados:<br>- Bilakaera demografikoaren aferari garrantzia handia ematen zaio, gai kointurala da, ez arazoaren fokoa.<br>Osatzeko:<br>- Eremu ezberdinen inplikazioa behar da ez soilik hezkuntzatik jardun: klima aldaketa, hezkuntza… |
| | 3.3. Kulturartekotasuna | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- "Sentibera" izatetik haratago joan behar dugu, Hezkuntza sisteman atzerakadak eman dira baliabideetan, inplikazio mailan (eskala guztietan), eta nekea nabari da. Sentibera izatetik neurriak hartzera pasatzeko unea da.<br>- Atzerritik datozen pertsonen kopurua goraka doa, asko ikasi dugu fenomeno honen inguruan baina ikasitakotik gutxi aplikatzen dugu egunerokoan. Ditugun beharrei erantzuteko egokiak diren baliabideak behar ditugu: espezializatutako profesionalak lehen lerroan lan egingo dutenak. Horretarako formakuntza ezinbestekoa da.<br>- Eskolak harrera gune integrala izan behar du, eta saretzeko espazioa. Haurrez gain familiak ere artatu behar dira, haiek batera prozesuak aurrera eraman.<br>- Kulturartekotasunaz ari garenean ez dugu soilik hizkuntzan geratu behar, haratago doa. |
| | 3.4. Formakuntza | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Gai hauen inguruan egin den lanketa eta jakituria ez dugu aitortzen, praktika onak badaude, bildu eta transmititu egin behar dira jakituriarekin batera. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | - Formakuntza badago baina profesionalizatu egin behar da eta Hezkuntza Sailak kontratazioak egin behar ditu espreski gai hauei erantzuna emateko: hizkuntza alorreko adituak kulturartekotasunean formatuak, segregazioari aurre egiteko mekanismoak garatuko dituzten adituak…formakuntza integral eta transbertsala.<br>- Eskoletan plangintzak zuzendaritza taldeek eta irakasleek egin ohi dituzte eta eskura duten jakintza eta baliabideekin aurrera eramaten dituzte: eremu horietan osatzeko aditu/talde/espezialistak beharrezkoak dira. |
| | 3.5. Gobernantza partekatua | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Tokian tokiko neurriak hartzeko gaitasunak izan behar ditugu, ez soilik konpromiso politikoa eskatu.<br>- Udaletxe eta administrazio maila ezberdinetan eskumenak banatu behar dira, elkarlana argitu eta sistematizatu.<br>- Eskolaz kanpo zer pasatzen da? Eskolaz kanpoko ekintzen ardura nork du? Sare publikoan gurasoek eta pribatuan titularrak. Ezberdintasun handiak sortzen dira baina baliabideak berdin banatzen dira, ez da egokia. Aisialdian arreta jarri behar da eta horren inguruko ardurak zehaztu. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 2. ariketa: lan-talde txikietan jasotako adostasun/desadostasunak kudeatzeko proposamenak

| 1. ERRONKA: GIZARTEAREN INPLIKAZIOA | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| Erabakitze indibidualaren “eskubidea” zalantzan jarri behar da eta ditugun pribilegio eta botereen inguruko diskurtsoa landu, guretik hasi behar dugu zalantzan jartzen.<br><br>Inplikazioa lortzeko baliabideak behar dira.<br><br>Diskriminazio mekanismoak identifikatu behar dira eta fenomenoa ez da naturalizatu behar, eskola segregazioa erabaki politikoen ondorioa da, ez da fenomeno natural bat. | Pribilegio eta botereen gaia lantzen eragile sozial guztiek hasi behar dute: administrazioak, elkarteek, banakakoek… eta saretzea eta elkarrizketa garrantzitsua da horretan.<br><br>Baliabideak administrazioak jarri behar ditu.<br><br>Diskriminazio mekanismoak identifikatzeko planteamendu sistemikoa beharrezkoa da eta administrazio eta eskola guztiek jardun behar dute. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Ikastetxeetan egin behar da baliabideak ziurtatuz: ikastetxeetara baliabide gehiago bideratu behar dira eta auzoko zerbitzuek zeregin hezitzailea izan behar dute. | Lehentasuna duen gaia da. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 2. ERRONKA: LIDERGO POLITIKOA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| Lidergo partekatua ezinbesteko bidea da, baina hutsean geratu ez dadin botere edo eragin ahalmena duten instituzioak heldu behar diote lidergotzari.<br><br>Konpetentzien definizio argia egin behar da, lidergotza partekatu administrazio eta instituzio ezberdinen artean modu eraginkorrean.<br><br>Saretze eraginkorrak osatu, konpetentzia konkretuei erantzun ahal izateko eta egitekoak bermatzeko. | Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailak… beste eragileei entzun behar die eta eskumenak eman. Behin eskumen horiek definitu ostean, lidergotzaren parte bat herri eskumena dutenen artean emango litzateke, bakoitzak jakinez zeini erantzun behar dion. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Eskala guztietan. | Hasita egon beharko luke, konpetentzien banaketa ahal bezain azkar egin behar da progresiboki erantzuten hasteko. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

**3. ERRONKA: KULTURARTEKOTASUNA**

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| Saretzea landu behar da, atzerritik datozen ikasle eta familiei harrera integrala egitea. Eskola, eta hezkuntza komunitatea ikus daiteke harrera espazio integral moduan; eta harrera hau sistematizatu egin behar da.<br><br>Kulturartekotasunaz ari garenean ez dugu hizkuntzan bakarrik zentratu behar. Atzerriko jatorria duten pertsona horien jakintzak balioan jarri behar ditugu, eta ezagutu behar ditugu. Kapital kulturalari garrantzia eta lekua eman behar diogu.<br><br>Espazioak demokratizatu behar dira, partehartzeaz ari garenean ez dadila soilik presentziala izan, erabakietara ireki behar da.<br><br>Fokoa ditugun desberdintasunetan jarri baino berdintasunetan jarri beharko genuke, eta jasotzeko eta irabazteko ditugun horiek identifikatu.<br><br>Kontuan hartu behar dira, bestalde, segregazioari aurre egiteko baliagarriak edota beharrezkoak diren beste zenbati aldagai (ez soilik hezkuntza): fenomeno sozialak (guraso elkarteak), hirigintza, nortasuna, etb. | Antolaketa arduraduna Eusko Jaurlaritza.<br><br>Momentu honetan EAJ eta PSOE daude organoetan, beraz, alderdiek ardura hartu beharko lukete herri, herrialde eta erkidegoko gobernuetan eskumenak aurrera eramateko “goian dute eskumena” soil batean geratu beharrean. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Jaurlaritzatik hasi eta esparru guztietan, eskala guztietan aplikatu behar da, tokian tokikoa. | Gaurtik hasita. |

| **4. ERRONKA: FORMAKUNTZA** | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| Espezializazio/profesionalizaziorako formakuntza eskaini behar da. Sortu behar dira segregazioari aurre egiteko figura espezializatuak etapa bakoitzari eta behar bakoitzari egokituak.<br><br>Administrazioko langileak formatu behar dira.<br><br>Transmisioa bermatu behar da; dauden material eta jakintzaren bilketa eta trasmisioa sistematizatu behar da.<br><br>Erreferente diren figuren jakintzaren transmisioa ere bermatu behar da (jubilatzean errelebo kontratuak…). | Unibertsitateak egin behar dute baina Hezkuntza Sailaren eskutik eta laguntzarekin. Jasota badago asko baina ez du aurrera egin.<br><br>Administrazioko langileen formakuntzari eta jakintzaren transmisioari dagokionez, administrazioak landu behar du Hezkuntza Sailari lotuta. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Espezialistaren figuraren sorrera unibertsitateetan eta erakundeetan (modu sistematizatuan).<br><br>Administrazioko langileen formakuntza lantokietan.<br><br>Jakintzaren transmisioa eskola/unibertsitatea/lantokietan egin behar da errelebo kontratuen bidez. | Espezializazioak eta formakuntzak hasita egon behar luke.<br><br>Jakintzaren transmisioarekin orain has gaitezke eginda eta dagoena transmititzen hasita. |

## 5. ERRONKA: GOBERNANTZA PARTEKATUA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| Tokian tokiko eskumenak banatu, zehaztu eta definitu behar dira. Administrazio eta erakunde bakoitzak dituen zeregin eta ardurak argitu eta banatu behar dira.<br><br>Partekatze politikoa ziurtatu behar da, boto eskubiderik ez duten pertsonei ahotsa eman behar zaie.<br><br>Eskolaz kanpoko jarduerek sortzen dituzten ezberdintasunetan fokoa jarri behar da. Baliabide berdinak ematen zaizkie errealitate oso ezberdina duten errealitateei, noren ardura da horiek kudeatzea? Sare publikoan guraso elkarteena eta pribatuan titularrarena?<br><br>Baliabideak definitu behar dira eta horien birbanaketarako neurriak hartu behar dira. | Hezkuntza Sailak.<br><br>Hezkuntza Sailak eredu publiko/pribatua argitu behar du, ezin dira neurri berdinak ezarri ezberdinak diren egoeretan eta horiek aplikatzeko programak eta dirulaguntzak argitu behar dira. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Esparru guztietan hezkuntzan lanean ari direnen lan-baldintzak egokitu behar dira: egutegiak, ordutegiak, formazioa, disponibilitatea, soldatak… | Atzo |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 6. ERRONKA: HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| Erabaki-hartzeen oinarrian ikasleen hezkuntza eskubideak bermatzea egon beharko litzateke.<br><br>Hezkuntza Sistemak, eta Hezkuntza Sailak, bere ardura eta gaitasunak aintzat hartu behar ditu segregazioari aurre egiteko. Determinazio eta lidergoa izan behar du.<br><br>Profil espezializatuak behar dira eta Hezkuntza Sailak figura profesionalak sortu eta errekonozitu behar ditu sistemaren baitan, eskainitako postuak erakargarriak izan behar dute.<br><br>Aurretik egin den guztitik abiatu eta praktikak jaso eta transmititu behar dira. Asko egin da alor honetan eta gutxi dago asmatzeko, baina jarraitu beharra dago lanean. | Hezkuntza Sailak ditu eskumenak, berak egin behar du, berak izan behar du lidergotza.<br><br>Figura profesionalen kasuan, Hezkuntza Sailak bultzatu behar du baina unibertsitateekin elkarlana ezinbestekoa da.<br><br>Sorturiko lanen bibliografia osatu eta praktika onak jasotzeko Hezkuntza Sailak bideratu behar du lana eta eskola komunitate osoak lagundu. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Hezkuntza Sailean. | Gaurtik hasita helburu eta kronograma zehaztuta. |

**Bestelako oharrak:**

Aipatu da saioetan edukia gehiago mamitzeko egokia izan daitekeela egin beharreko lanak aurretik zehaztea, horrela etxeko-lanak eginda saiora joan eta saioa bera oparoagoa izan daiteke.

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

**MAHAIA:** URDAZURI

## 1.ariketa: adostasunak, desadostasunak eta horiek kudeatzeko ideiak

| | | Adostasunak | Desadostasunak |
|---|---|---|---|
| **EZAUGARRITZEA** | 1.5. Segregazioaren definizioa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Faltan: nondik sortzen da segregazioa?<br>- Sistemikoa da, egiturazkoa (klasismoa eta arrazakeria ditu oinarri.<br>- KAPITALISTA; PATRIARKAL eta ARRAZISTA du oinarri.<br>- Premia bereziak ez dira aipatzen. |
| | 1.6. Ondorioak | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | Desados:<br>- Hezkuntza-aukera berdintasuna hautsi egiten du. Orokorragoa da aukera berdintasuna hausten du. Kohesio-sozialaren kontra doa.<br>- Eskola arrakasta kolokan jartzen da, baliabide egokiak ez direlako jartzen<br>OSATZEKO:<br>- Kohesioa apurtzen du |
| | 1.7. Kausak | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | Desados:<br>- Beldurti hitza erabiltzeak tonu ezkorra ematen dio. Gainera ez da hori bakarrik denik. Proposamen baikorrak gehitzeak balio erantsia eman ahal diote.<br>OSATZEKO:<br>- Une historiko eta eredu ekonomiko honetan lehia neoliberalari dago lotura, arrazakeria eta klasismoarekin batera<br>- Gatazka eko-sozialaren aipamena agertzea interesgarria izan daiteke. Diagnostikoan beharbada.<br>- Sistema aldatuta ere, arazoak jarraitu dezakeela uste dut taldeko batek. Desadostasuna sortu da bi taldekideen artean, beste batek eredu berri batek berdintasuna ahalbideratu dezakeela uste du.<br>- Beste faktore batzuk ere eragina daukate:<br>Familiek eskola aukeratzeko nahi.<br>Ereduari lotutako antolaketa hezkuntza eragina dauka.<br>- Irakasleen papera garrantzitsua da aukera berdintasunean.<br>- Hezkuntza sisteman berak beste segregazioa batzuk sortzen dira. Hezkuntzak neurriak hartu behar ditu ez segregatzeko. |
| **ITUN SOZIALA** | 1.8. Diagnostikoa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin. Indizeak behar dira. | Desados:<br>- Atzeratze kontzeptua, egokiena? |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Datuek bilketarekin oso ados. Modu gardenean eman behar dira. | - Euskal Herritik kanpoko jatorria duten ikasleei dagokienez hirietan antzematen da…. Egoera sozioekonomikoak oinarriturikoa da larriena, arrazismoarekin gurutzatua egiten da.<br>- Atzeratze demografikoa kontzeptua agian ez da egokiena.<br>- EH-tik kanpo datozenak aipatzen da, baina egoera sozioekonomikoa beharko litzateke.<br>OSATZEKO:<br>- Gurasoek eskola erabakitzeko "balizko eskubidea".<br>- Eredu ekonomikoari loturik dago, eta hezkuntza-sistemaren antolaketa dualak honetan sakondu egiten du: titularitate publiko edo pribatua. Honi lotuta, ituntze-sistema unibertsala. |
| | 2.1. Helburu orokorra | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Justizia soziala, hortik abiatzen da. Oinarria biltzen duen terminoa.<br>- Maila indibidualera eraman da, kolektibora. |
| | 2.2. Hezkuntzaren eginbeharra | Orokorrean ados ideia nagusiarekin Hezkuntzaren zerbitzu publiko izaera bultzatu behar da, baliabideak jarriz eta borondate politikoa ehunduz. | Desados:<br>- Hezkuntzaren zerbitzu publikoa izaera bultzatu behar da, aukera berdintasuna lortzeko baliabideak./ Hezkuntzaren egungo antolaketa eredua gainditu behar da, ituntze-sistema unibertsala gainditu, aukera berdintasuna.<br>OSATZEKO:<br>- Hezkuntza sailak eta tokiko administrazioak ARDURAK hartu behar dituzte eta KONTROL MEKANIMOSAK EZARRI.<br>- Tokian-tokiko neurri zuzentzaileak, ikastetxeei eragiten dietenak, LOTESLEAK direnak.<br>- Zein baliabide eskainiko zaizkio? Hezkuntza Sailaren atzean pertsonak daude, askotan tresnarik gabe, denborarik gabe, jende gutxi lanean…<br>- Familia eskubideak, nora arte? Askotan umeen eskubideen gainetik erabakitzen dute.<br>- Gai ezberdinek, kolektiboki pisua dutenak (erlijioa, hizkuntza…) zein toki izan behar dute? |
| | 2.3. Euskara oinarri | OSATZEKO: | OSATZEKO:<br>- Honetarako hizkuntza ereduak gainditu behar dira eta euskararen murgiltze eta mantentze sisteman oinarritzen den ikas-eredu bakarra ezarri<br>- "Hiritartasun" eta kulturartekotasun hitzak gehitu.<br>- Egungo hizkuntza ereduak gainditu behar dira. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ERRONKAK** | 3.1. Gizartearen inplikazioa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Deseraiki hitzarekin desadostasunak egon dira taldean. Taldekide batek uste du ez dela aproposa, beste batek bai, sozialki ikasitakoa deseraikitzen dugulako.<br>- ARDURA hitza falta da. Askotan eskatzen dugu, baina ez ditugu ardura hartzen. |
| | 3.2. Lidergo politikoa | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Kolektibo segregatuak inplikatuta.<br>- Politika publikoan eta instituzioen ardura. Neurri zuzentzaileen jarraipena eta kontrola.<br>- Izenburua irakurrita, politikariak etortzen zaizkigu burura, baina testuan ez dira aipatzen.<br>- Izenbururako proposamenak:<br>LIDERGO POLITIKO PARTEKATUA<br>ERAKUNDE PUBLIKOAN LIDERGOA<br>- Zer dira politika publiko ausartak? Lehen aipatutako beldurtiaren erantzuna?<br>- Politikariek lideratu behar dute hau, baina beti adituak alboan dituztela.<br>- Politika errealitatean busti behar da. |
| | 3.3. Kulturartekotasuna | Orokorrean ados ideia nagusiarekin.<br>. | OSATZEKO:<br>- “Hiritartasuna” kontzeptua gehitu.<br>- Euskara oinarri izatea nahi badugu, ikasle berriak datozenean, baliabideak (giza-baliabideak eta materiala) jarri. |
| | 3.4. Formakuntza | Orokorrean ados ideia nagusiarekin.<br>Familiak aipatzearekin oso ados | OSATZEKO:<br>- Irakasle eta ”hezitzaile guztien” formakuntza, gehitu. Hezkuntzako langile guztien formakuntza.<br>- “Sentsibilizazioa” gehitu.<br>- |
| | 3.5. Gobernantza partekatua | Orokorrean ados ideia nagusiarekin | OSATZEKO:<br>- Tokiko errealitatean, tokiko instituzioak (udalak) gehi bertako eragileak (denak) partekaturiko gobernantza gune bat sortu, loteslea dena.<br>- Sortu daitezkeen talde eta eragileei (auzo elkarteak, aisialdi elkarteak…) erabakitzeko eskubidea eman. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 2. ariketa: lan-talde txikietan jasotako adostasun/desadostasunak kudeatzeko proposamenak

| 1. ERRONKA: GIZARTEAREN INPLIKAZIOA | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| - **Gizarte maila ezberdinetan foroak bideratu, sentsibilizazio eta formakuntzarekin batera, ekintzara bideratua.**<br>- **Sektore/pertsona inplikatuetan (zaurgarrienak) fokoa eta bitartekoak jarri, beraien parte-hartzea/ahotsa zuzenean jasotzeko**<br>- **- Pertsonen aukera/beharren arabera egokitua, denon ahotsa jasotzeko.**<br>- **- Dinamikak/espazioak/aisi eredu egokituak eta doakoak (kontsumismorik gabe)** | - Hezkuntza saila - Jaurlaritza<br>- Udala<br>- Eskola<br>- IGE<br>- Elkarte ezberdinak (kultur-kirol. Auzo, GKE…)<br>Bakoitza ardura maila ezberdin batekin |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| *Dagokion mailan/gunean, "naturalki" hurbilena dena. Bereziki segregazioa handia den lekuetan.* | -Urgentzian<br>Kronograma/intentsitatea/maiztasun/ordutegia… jendeari egokituta |

| 2. ERRONKA: LIDERGO POLITIKOA | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| ***Titulua aldatu: LIDERGO POLITIKO PARTEKATUA edo ERAKUNDE PUBLIKOEN LIDERGOA***<br>***Politikariek gidatu behar dute, beti ere adituekin batera*** | Eusko Jaurlaritza eta Hezkuntza Saila |
| ***Kontrol mekanismoak eta neurri zuzentzaileen bermeak.***<br>***Auditoretzak, ikuskaritzak, transparentzia politikak…*** | Eusko Jaurlaritza<br>Udalek rol inportantea daukate. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| *Itun sozialean* | |
| *Erakunde publikoetan*<br>*Eskuragarri nonbaiten, gardena izan dadin* | Etengabe |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

| **3. ERRONKA: KULTURARTEKOTASUNA** | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| ***HIRITARTAUSNA GEHITZEA. Pertsonaren beste ikuspegi zabalago bat txertatu. OINARRI GISA HARTU. Definizioan gehitu nolako pertsona hezituko duen hezkuntza-sistemak. Zein hiritar du helburu hezkuntza-sistemak?*** | Eusko Ikaskuntza ta Hezkuntza Saila |
| ***Baliabideak eskolara, adibidez 10 haur berri datozenean (kultura eta etnia ezberdinetakoak)***<br>- ***Hezkuntza-sailak – Aurrekontuak - Parlamentua (gobernuan dauden eta ez dauden alderdiak*** | Arduradun publikoak, erakunde publikoak. Eragile sozialak (adibidez, Ongi Etorri Errefuxiatuak, KALE DOR KAYIKO..) |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| *Itun sozialean jaso* | |
| *Hezkuntza Sailak: ikastetxean izan behar du isla. Zentroan aldaketa.* | Etengabe, umeak badoaz eta badatoz. |

| **4. ERRONKA: FORMAKUNTZA** | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| ***Formakuntza beharrak ondo identifikatu eta hizlari onak aukeratu.***<br>***Beste herrialde batzuetako esperientziak aprobetxatu.***<br>***Lekukotzak/testigantzak partekatu: bizipenetik eta ezagutzatik.*** | - Hezkuntza Saila<br>- Unibertsitateak (ikerketa)<br>- Eskola<br>- Premia identifikatzen duen edozein eragile/talde/…<br>- Kolektibo zaurgarriak |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| - ***Eskoletan*** | - Baina ona sistematiko eta jarraituan. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

| **5. ERRONKA: GOBERNANTZA PARTEKATUA** | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| ***Udalak eta ikastetxe guztiak mahaia osatzea. Udal hezkuntza foroa. Erabakitzen dutenak, lotesleak.***<br>***Mahai/foro bat sortu eta arautu.*** | Udalek<br>Ikastetxeek<br>Eragile sozialek, hezkuntza eragileek<br>Sindikatuek<br>Gazte foroak: parte-hartzearen kultura bultzatuz |
| ***Auzoak eta herriek erabakitzeko eskubidea izatea.*** | Udalak (ordenantza bat edo araubide bat |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| *Tokiak toki, herrietan* | Ahalik eta azkarren<br>Etengabe |
| *Tokian toki* | Ahalik eta azkaren |

## 6. ERRONKA: HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| ***Baliabideak (pertsonalak, denbora gehiago, lan baldintzak [LAN-HITZARMENAK], materiala gehitu) Oso lotuta finantzazioari, AURREKONTUAK.*** | Jaurlaritzak<br>Sindikatuak negoziazioan<br>Aurrekontuen inguruko lana: ERAGILE SOZIALAK ETA HEZKUNTZA ERAGILEAK<br>Ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-komunitatea (langile, zuzendari, gurasoak, ikasleak…)<br>GOBERNANTZA PARTEKATUA |
| ***Egungo hezkuntza antolaketa, ituntze-unibertsala gainditu. Neurri zuzentzaile eta lotesleak, kontrol mekanismoak.***<br>***Zer? Parte-hartze kultura zabaltzea, gogoeta espazioak sortuz.***<br>***Adostasun soziala lortu***<br>***Ikasleen parte-hartze foroak bultzatu*** | Hezkuntza komunitatea eta eragileak<br>Jaurlaritzak<br>Alderdi politikoak<br>Ikasleak |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| *Negoziazio-mahaiak*<br>*Foro sozialak: hezkuntza eragileak parte hartzen duten lekuak.*<br>*Udal foroak*<br>*Ikastetxe bakoitza*<br>*Jaurlaritza* | Etengabe, iraunkorki |
| *Elkarbizitza foroak* | Etengabe |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

**MAHAIA: ALTUBE**

**1.ariketa: adostasunak, desadostasunak eta horiek kudeatzeko ideiak**

| | | Adostasunak | Desadostasunak |
|---|---|---|---|
| **EZAUGARRITZEA** | 1.9. Segregazioaren definizioa | - Segregaziorako eta "guetizaziorako" arrazoi "minoritarioak" ere jasotzea garrantzitsua deritzot. | + (…) eta ikastetxe horiek dituzten sarrera baldintzak aurretik aipatutako pertsona talde horiek kanpo uzteko mekanismoak ezarri eta horien kontrako baimen instituzional bat dagoelako.<br>- Ikastetxearen ikaslegoa ez da auzoaren edota inguruaren isla<br>- Ikastetxe arteko bakarrik ez; ikastetxe eta leku ezberdinen arteko.<br>- Segregazioa ez da bakarrik eskualdeen artean ematen, baizik eta eskola barruan.<br>- Zein da definizio honen erreferentzia? Lurralde, udalerri, udalerri handietako zona eskolarra… |
| | 1.10. Ondorioak | - Aukera berdintasuna ez da bermatzen<br>- Dena oso ondo zehaztuta | + (…) euren aukera berdintasuna, eskola arrakasta eta bizitza duin eta ongizaterako aukera kolokan jartzen da.<br>+ (…) euskara eta euskal kulturatik urrundu/ukatu<br>+ Baliabideak bakarrik ez, baita ere interbentzioa segregazio hori ez gertatzeko. |
| | 1.11. Kausak | - Lehia neoliberala<br>- Ados | + (…) une historiko honetan lehia neoliberal patriarkalari, arrazakeria eta klasismoarekin batera<br>- Borondate eza, erabaki politikoek ardura, egoera areagotzen utzi.<br>- Segregazioaren kontrako lana ez da bakarrik hezkuntza sistemarena, baizik eta gizarte osoko beste erakunde eta instituzioena ere. Bigarren lerroan oso ondo adierazten da aurretik idatzitakoa, baina funtsezko ideia hori askoz gehiago zehaztu behar da, gauzatu ahal izateko.<br>- Kuotak eta baldintzak ere badira kausak. Adibidez, haurreskoletan 13.000€ |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | - Kausak sozialak, kulturalak, ekonomikoak, linguistikoak, ideologikoak… dira. |
| **ITUN SOZIALA** | 1.12. Diagnostikoa | - Atal hau garatzea, zehaztea funtsezkoa da. Adierazleak koherenteak izan behar dira helburuekin. Ez da lan makala!<br>- Enpirikoki neurtu BEHAR da, ondorioak aspalditik pairatzen ari dira, zergatik ez da egin? Borondate eza akaso! | - (amaieran) beldurrak eta erresistentziak kudeatzeko gaitasuna izan behar du sistemak. Sisteman zehaztu: gizarte, agintari, administrazio osoak, agente sozial guztiak).<br>+ (…) segregazioa ez da arazo orokorra nahiz eta nabarmenki zabaltzen ari den EH luze zabalean, hortaz kezkagarrienetako bat da.<br>- Segregazioaren fenomenoa hizkuntza politiken aldagaiarekin erlazionatuko duen aipamenik ez dago. (Begira EAEko zenbait auzo ala lanbide heziketa; Nafarroan euskararen legea; Iparraldeko legeari oztopoak) |
| | 2.1. Helburu orokorra | | + (…) aterabide eta bide orri komun eta adostua praktika eraginkor batekin batera. |
| | 2.2. Hezkuntzaren eginbeharra | - Hezkuntza sistemak ikasleei euren bizitza garatzeko aukera berdintasuna bermatu behar dire. "Ideia nagusia eta helburua behar luke".<br>- Segregazioak ondorio hauek ekartzen ditu, baina ondorio hauek ez dira soilik segregazioagatik gertatzen. | |
| | 2.3. Euskara oinarri | - Hezkuntza sistemak euskalduntzeko bermea eskaini behar du. | - Euskara eta euskal kultura oinarri<br>- Jatorrizko hizkuntza-kulturen potentziala azpimarratu behar da gehiago eta horreri neurri zehatzak jarri. |
| **ERRONKAK** | 3.1. Gizartearen inplikazioa | - Ahots desberdinei tokia egin (desberdintasunak ezagutzeko)<br>- Konponbide "integrala" behar da. Esparru ezberdinetan<br>- Garrantzi handiko beste esparru bat: gizarte osoaren inplikazioa bermatzeko diagnostiko partekatua (ez bakarrik hezkuntzarena), eta helburu partekatuak, ebaluazio partekatuak,… behar ditugu.<br>- Erronkak: sozialak (familiarrak), laboralak (hezkuntza sistemako langileekin), demografikoak… | |
| | 3.2. Lidergo politikoa | | |
| | 3.3. Kulturartekotasuna | | - Sentibera hitza ordezkatuko nuke konnotazio paternalista eta ez-nahikoak dituelakoan |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | erronka horren aitzinean: " (…) desberdinekiko begirunea, elkartasuna" edo gisakorik hobe. |
| | 3.4. Formakuntza | | - Gehitu sentsibilizazioa |
| | 3.5. Gobernantza partekatua | - Gobernantza partekatua: aholku emailetik, erabaki gune izatera; deszentralizazioa udalerriak indartuz; saretzetik haratago joan behar du gobernantza partekatuak<br>- Auzo eta herrien eskalari eskumenak zabaldu planteamendu eta kudeaketa komunitaristagoetara joaz. | |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 2. ariketa: lan-talde txikietan jasotako adostasun/desadostasunak kudeatzeko proposamenak

| 1. ERRONKA: LIDERGO POLITIKOA | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| Puntu honetan adostasun maila handia egon da, ez da desadostasunik adierazi; hala ere, honako ekarpen hauek proposatzen ditugu. | A) "(…) Erakunde guztien eta gizarte eremu desberdinen arteko lidergo partekatua oinarri" → Hezkuntza saila, osasun saila, Gizarte gaien saila, kultura eta hizkuntza politikak, hirigintza eta etxebizitzen politikak presente beharko lukete egon.<br>B) "Baliabideak" → Progresibitatea eta beharren araberako banaketa<br>C) "Jarraipen publiko eraginkorra" → Etengabe ebaluatu indikatzaile publiko eta adostuen arabera. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Politika sailetan administratiboaren esparru eta eskala guztietan. EHko eremu administratibo guztietan. | A)-tik hasita, oinarria eta perspektiba eta iparra jarriz gerora hartuko diren neurri orori. Premiazkoa da lehen bai lehen hastea.<br>A) eta gero, B) eta C) prozesu akaberetan eta etengabe neurriak baloratuz eta doituz. |

| 2. ERRONKA: KULTURARTEKOTASUNA | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| A) Ez da desadostasunik adierazi txostenarekiko, ez bada "sentibera" hitzari dagokionez.<br>B) Bertzeak bertze anekdota eta folklorearen eremutik ateraz gaia eta HTBari lotutako eskuhartze positibo eta ahalduntzaileak eginez (Kaló, edo dena delako hizkuntza saioak eskoletan) | B) Plangintza eta aurrekontua izan bezain laster. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| B) Tokian tokiko diseinuak baliabidez hornituta. | B) Plangintza eta aurrekontua izan bezain laster. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

| 3. ERRONKA: GOBERNANTZA PARTEKATUA | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| Deszentralizazioa: zein eskumen?<br><br>*Deszentralizazioa beharrezkoa ikusten da baina eztabaida dago transferitu beharko liratekeen eskumenen inguruan. Batzuentzat beharrezkoa ikusten da ahotsa izatetik haratago, espazio deszentralizatuak erabakigune bilakatzea; beste batzuk, ordea, uste dute erabakiguneak erkidego mailan mantendu beharko liratekeela. | Hezkuntza komunitatea<br>Herri/auzoetako elkarte ezberdinak<br>Udalak<br>Hezkuntza departamentua: ikuskaritza, delegaritza<br>Lidergoa: Udalak eta hezkuntza sailak |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Tokian tokiko (herrietako/auzoetan) guneak. | Gune horretan parte hartzen dutenek plangintzari lotuta. |

| 4. ERRONKA: GIZARTE INPLIKAZIOA | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| Segregazioaren aurkako ituna: zabala, herritarra, anitza, parte hartzailea, gertukoa. | Gizarte/jendarte osoak eta pertsona guztiekin; elkarteek. Ituna orokorra izatetik, herri bakoitzekoa izan beharko luke.<br><br>Sentsibilizatuta dagoen taldeak lideratu beharko luke prozesua. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Herriz herri, auzoz auzo. Arazoa nabarmena den herri horietatik hasita. | Gaurtik hasita eta akordioak lortzeko beharrezko denborarekin |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

| **5. ERRONKA: FORMAKUNTZA** | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| Formakuntzaz gain SENTSIBILIZAZIOA (errealitatearen ezagutza) ere. Sentsibilizazioa behetik gorakoa; formakuntza goitik beherakoa. | Instituzioek: hezkuntzak, udalek. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| Norbanakoak gertukoen dituen guneetan edo ezagutu nahi ditugun guneetan. | Etengabe |

| **6. ERRONKA: HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA – EZ DU DENBORARIK EMAN OSATZEKO** | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| | |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| | |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## TALDEA: ARGA

### 1.ariketa: adostasunak, desadostasunak eta horiek kudeatzeko ideiak

| | | Adostasunak | Desadostasunak |
|---|---|---|---|
| **EZAUGARRITZEA** | 1.13. Segregazioaren definizioa | 1-Definizio operatiboa.<br>Fenomenoaren ulermen partekatua erraztu.<br>Gakoa: Ikasleen banaketa desberdina eta desorekatua.<br><br>2-Ados: Definizioaren zehaztasun maila gustatu zaio: gaitasuna, generoa, kultura ea.<br><br>3-Orokorrean ados nago definizioarekin, irekia da eta egoera zaurgarrian egon daitezkeen kolektibo desberdinak biltzen ditu. | 1-Desadostasuna / Hutsuneak: Definizioari norabidea falta zaio. Zertarako nahi dugu segregazioa gainditu?<br><br>2-“Eskola porrota ez izatea” izan beharko litzateke definizioan gehitzeko.<br><br>3-Definizio inozoa, aseptikoa da. Honako hauek gehitzea proposatzen da:<br>.Hezkuntza politiken ondorioz…<br>.Egoera zaurgarrienean dauden ikasleen pilaketa ikastetxe zehatz batzuetan.<br>.Ia gehienetan sare publikoan. |
| | 1.14. Ondorioak | 1-Bigarren paragrafoko ideiarekin ados. | 1-Herrietan ikastetxe jakinean batu behar dira bai ala bai. Honek ez du kolokan jarri behar baliabideak jartzen badira, ez dago zergatik porrota egon. Beste batzuetan, elkarrekin egotea nahi dute (Hauekin ez da planteatzen zentro aukeraketa librea).<br><br>2-Desadostasunak:<br>.Eskolatze berezitua ez ipintzea proposatzen da. Termino hori eufemismoa dela uste da. Horren ordez, SEGREGAZIOA ipintzea proposatzen da, errealistagoa dela iritziz.<br>.IDENTITATEA, ez dira hemengoak sentitzen (Nazionala).<br>.Ondorioetan ideia hauek jasotzea falta dela uste da:<br>-Klase altuen inposaketa.<br>-Maila sozial desberdinak errepikatzea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | 3-."Baliabide egokiak" erantzun mugatua iruditzen zait, neurri estrukturalak ere islatu behar lirake.<br>.Kolektibo guztiak gehitu: generoa, gaitasunak ea.<br><br>4-.Gaitasunari erantsiko nuke.<br>.Aukera berdintasuna hautsi bai, baina, hasierako ARRAKALA KULTURALA dago. CURRICULUM.<br><br>5-"Arrazakeria" kanpotik ipintzen den kontzeptua da. Aldatu egingo nuke. Zer esan nahi dugu horrekin? Arrazakeria ez da propioa, berezkoa. Ezberdintasunak denok ditugu: kulturam jatorria, azal kolorea ea. Arrazakeriaren ordez, ARRAZIALIZATUAK ipini daiteke. |
| | 1.15. Kausak | | 1-.Identitatearen ideian sakondu.<br>.Arazoaren iturburua: Neoliberalismoa.<br>."Kudeaketa beldurtia da segregazioaren kausa": Ados nago ideiarekin. Agian, beste modu batean formulatu daiteke, gehiago zehaztu kudeaketa eredu horren ardura zeinek duen.<br><br>2-.Arrazakeria + Klasismoa.<br>.Identitatearen hausnarketa kritikoa egin behar da. Zer da euskaldun izatea?<br><br>3-Arrazoi sozio-linguistikoak ez dira aintzat hartzen: Euskararen normalkuntza eza.<br><br>4-.Eskolatze berezitua terminoa ez erabili. SEGREGAZIOA, errealitate itsusiek izen itsusia dute.<br>.Hezkuntza politikek zuzendu nahi izan ez duten ondorioak dira.<br>.Ez dira politika inozoen ondorioak.<br>.Sare pribatu itunduaren gehiegizko presentziagatik. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | 5-Hezkuntza sistemak egiturazko arazoak dituen ondorioak: dualtasuna, hain zuzen ere. |
| | 1.16. Diagnostikoa | | 1-.Eskolatze berezitua neurtzeko estandarrak ezartzeaz batera, egoera sozio-kulturalaren (hizkuntzak) errealitatearen argazkia ere izatea beharrezkoa iruditzen zait → DIAGNOSTIKO OROAGOA.<br>.Zein izaeratako indizeak?<br><br>2-“hirietan atzematen da segregazio arazo larrien” → Herrietan ere ematen da (Debabarrenean… Eibar, Soraluze ea.).<br><br>3-INDIZEAK da garrantzitsua: Neurketa izan behar du: Ondo definitua, neurgarria, kontsentsuatua.<br><br>4-Kanpoko jatorria duten ikasleei dagokienez, oraingo fenomenoa dela ematen du eta lehen ijitoekin gertatzen zen.<br><br>5-.2021. urtera arte Hezkuntza Sailak ez du Segregazioa Hezkuntza Sisteman onartu.<br>.2. paragrafoaren hasieran: “Hainbat erabaki politikoek eta…” gehitu.<br><br>6-.”Ez da arazo orokorra” kendu.<br>.”Hirietan atzematen da segregazio arazo larriena”: Hau kendu → Orion, Bastidan, Amurrion, Ordizian… Adibide asko daude.<br>.”ESKOLATZE BEREZITUA” kendu. |
| **ITUN SOZIALA** | 2.1. Helburu orokorra | | 1-Hezkuntza ez da gizarte eredu justu eta ekitatiboa sortuko duena → Aurretik beste batzuk daude.<br><br>2-Ekitatea terminoarekin: Interes edo eta pribilegio partikularrak alde batera utzi behar. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | 3-Testu osorako GizaRTE terminoa kendu → JENDARTE erabili (Feminismoaren ikuspegitik gizartek gizonei deitzen die). |
| | 2.2. Hezkuntzaren eginbeharra | | 1-Ados, baina, gehituko nuke: Horretarako beharrezko ikusten diren baliabideak (pertsonalak eta bestelakoak) jarri beharko dira → Hau OROKORRA ere bai.<br><br>2-Interes edota pribilegio partikularrak alde batera uztea.<br><br>3-"Ikasleei bizitzan aritzeko" → eta komunitate baten parte izateko (horrelako zerbait agertzea faltan botatzen dut). Zein dira komunitate horren ezaugarriak?<br><br>4-"Ikastetxe bakoitzean dauden berezitasunak" neurtuta egon behar dute, benetan behar dituzten baliabideak eskaintzeko → NEURTZEA, datuak behar dira.<br><br>5-Orokorrean ados nago, baina, berriro ere tokian tokiko proiektuez gain, neurri estrukturalak azpimarratu behar lirateke. |
| | 2.3. Euskara oinarri | | 1-"Euskara ezagutzak aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa elikatzen ditu" → Ideia hau klabea da. NOLA? Identitate ulertzeko modu berriak.<br><br>2-.Non dago euskal curriculuma?<br>.Euskal hiztunak izatearekin nahikoa da?<br><br>3-Euskararen ezagutzak Aukera Berdintasuna baldin badakar → EUSKARAREN INGURUAN HAUSNARKETA SAKONA EGIN BEHAR DA. Benetan batzeko tresna al da? |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | 4-Ados, baina, gehituko nuke: Horretarako beharrezko ikusten diren baliabideak (pertsonalak eta bestelakoak) jarri beharko dira.<br><br>5-Euskararen gaiean ba ote dago adostasunik hezkuntzatik kanpo? |
| **ERRONKAK** | 3.1. Gizartearen inplikazioa | | 1-Zer dira eta non daude eztabaida honetan kolektibo segregatuak? Non dago kolektibo segregatuen ahotsa? Lehenengo saioan egon ez zirenak entzutea garrantzitsua da: familiak, ikasleak ea.<br><br>2-GIZARTEAREN INPLIKAZIOA baino lehenago gizartearen heziketa behar da. Guztiok al gera benetan gizarte hau?<br><br>3-Egiturazko aldaketak behar dira, ez neurri zuzentzaileak: Hezkuntza publikoa lehenetsi eta erdigunean jarri behar da → DUALTASUNA GAINDITU. |
| | 3.2. Lidergo politikoa | | 1-Borondate eta ausardia politikoa behar da, interes partikularrekin orekak egin gabe. |
| | 3.3. Kulturartekotasuna | | 1-.Nola egikarituko da Hezkuntza Sistema euskarari edo euskal kulturari aitortzen zaion tresna izaera?<br>.Ausardia falta, ezinbestekoa den urratsa emateko → HEZKUNTZA SISTEMA NAZIONALA. |
| | 3.4. Formakuntza | | 1-Ados eta gehituko nuke: Komunikabide denak (Telebista, irratia, sare sozialak, TicToc ea.) ere, itun sozialean parte hartuta. Denon formakuntza nahitaezko baliabide garrantzitsuak dira, sozialki irudiak aldatzeko ezinbestekoak.<br>2-Zuzendaritza taldeak sendotzea → Erronka ausartei aurre egiteko. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | 3-Politikarien formakuntza ere sartu behar da. |
| | 3.5. Gobernantza partekatua | | 1-Desberdintasuna ez da txarra, aberasgarria da. Desberdintasuna kendu eta, horren ordez, DESBERDINKERIA terminoa erabili. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 2. ariketa: lan-talde txikietan jasotako adostasun/desadostasunak kudeatzeko proposamenak

**1. ERRONKA: HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA** → Proposamen bakoitza zenbaki batekin zehazten da eta gainontzeko galderetan proposamen bakoitzari dagokiona zenbaki berarekin zehazten da.

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| 1-IRAKASLEAREN FIGURA berplanteatu beharra dago: Zer da irakasle izatea? Hasierako irakasleen formakuntza berrikusi behar da eta etengabeko formakuntza zentroak dituen beharrei lotuta egon behar da, ez irakasle bakoitzaren interes pertsonalen araberakoa.<br><br>2-Zuzendaritzak – Irakasleak egonkorrak eta prestatuak izan behar dira → Pentsatzearekin batera, egiten dutenak.<br><br>3-Ordezkapenak ekidin behar dira.<br><br>4-Hezkuntza proiektuak berrikusi behar dira: zein filosofia duten, zertarako diren → Benetazkoak izan behar dute hasieratik. Gaur egun, ez zaie apenas kasurik egiten.<br><br>5-Zuzendariek eta irakasleek babes politiko-ekonomiko-juridikoa behar dute.<br><br>6-Gaur egun, Pedagogiarekin ezin da Hezkuntzan lan egin eta hau aldatu beharra dago → Ikastetxeetan Pedagogia dakien jendea behar da.<br><br>7-Ikas-Komunitateak edo ideia hori duten antzeko ekimenak bultzatu behar dira.<br><br>8-Klabe kulturalek batzuen eta besteen artean asko ezberdintzen gaituzte eta funtzionamenduan asko eragiten du. Oso fenomeno sakona da. | 1-Hezkuntza Sailak – Unibertsitateak – Dekanotzak – Ikastetxe barruko irakasleek → Irakasleek TEORIA + PRAKTIKA behar dute → Unibertsitatea edo kanpoko beste eragile adituen eta irakasle profesionalen artean hartu-emana egon behar da. Irakasleren bati –figura bat sor daiteke horretarako- orduak eman beharko litzaizkioke unibertsitate edo adituekin hartu-eman hori mantentzeko.<br><br>2-Eusko Jaurlaritzak → -Zuzendaritzak eta irakasleak profesionalizatu eta lidergoa eman behar die: Errekonozitu eta babesa eman behar die.<br>-Autonomia bai, baina, hori babes juridikoarekin eman behar die: Hau gehiago zehaztu beharra dago. Autonomia eta funtzionalitatearen arteko oreka izan behar da.<br><br>3-Hezkuntza Sailak eta Hezkuntza Ministerioak.<br><br>4-Ikastetxe bakoitzak egin behar du, ikastetxe horretako komunitateak:<br>-Ikuskaritzak egon behar dira proiektuak aurrera ateratzen direla bermatzeko.<br>-Horretarako, zuzendaritzen eta langileen egonkortasuna bermatu behar da.<br>-Hezkuntza proiektua malguak izan behar dira: Jarraipena eman behar zaie eta aldatzen, errealitate berrietara egokitzen joan behar dira.<br>-Hezkuntza Proiektua benetazko dokumentua dela sinistu behar da eta aurrera eraman.<br><br>5-Hezkuntza Sailak, Hezkuntza Ministerioak eta Komunikabideek.<br><br>6-Hezkuntza Ministerioak, Hezkuntza Sailak. Nahiz eta taldean Hezkuntza Sailak horretarako konpetentziarik ez duela uste den, honek ikastetxeetan Formakuntza Pedagogikoa edukitzeko figura sor dezakeela uste dute → Lehen aipatu duten Unibertsitatea edo aditua den eta ikastetxearen arteko zubi lana eta jarraipena egingo duen profesionala.<br><br>7-Hezkuntza Sailak, Ikastetxeek eta Udalek.<br><br>8-Hau lortzeko Komunitatearen ideia zabaldu eta garatu behar dela uste dute → Denon artean prozesu partehartzaileak zabaldu behar dira, erantzunkizun ezberdinekin. Askotan ikastetxeak klabe kultural horietara ez direla iristen diote, oso ezberdinak diren zenbat bizi ohitura eta balioetara → Nola iritsi elkar ezagutzera? Komunitatea garatuz eta landuz. |

| | |
|---|---|
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| | Gaur egun, Hezkuntza Lege berriaren garai honetan → Marko honetan burutu beharko litzateke. Bestela, legearen babesik gabe oso zaila da. |

## 2. ERRONKA: GIZARTEAREN INPLIKAZIOA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| -Ikas komunitateak.<br><br>-Hezkuntzaren balioa jendartean zabaldu.<br><br>-Herri mailan lidergo politikoa eta baita orokorrean Eusko Jaurlaritzan ere.<br><br>-Gizartea zein puntutaraino dago hezituta? Gizartea prestatua dago? Jendartearen heziketa bultzatu behar da → Horretarako, benetazkoak eta eraikitzaileak diren esperientziak erakutsiz eta horiek ezagutzera emanez hezitu behar da gizartea → Hitzetatik haratago, errealitatean badiren eta funtzionatzen duten esperientziak, adibideak erakutsi behar dira, ez bakarrik mezu etiko eta politikoak zabalduz.<br><br>-Matrikulazio kanpainetan → Arrakastatsuak diren esperientziak erakutsi eta proiektuak erakargarriak egin. | -Politikariek.<br><br>-Komunikabideek.<br><br>-Zentro horiei baliabideak eman eta auzora, ingurura zabaldu → Posible dela erakutsi. Hezkuntza Sailak, ildo honetan, errekurtso gehiago sortu beharko lituzke. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| | Gaur egun, Hezkuntza Lege berriaren garai honetan → Marko honetan burutu beharko litzateke. Bestela, legearen babesik gabe oso zaila da. |

## 3. ERRONKA: LIDERGO POLITIKOA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| -Politikari guztiek zeharka eta arlo guztietan segregazioaren gaia landu beharko lukete: enpleguan, kirolean, genera gaietan, kontziliazioan ea.<br><br>-Mezuak zabaldu eta, publizitatea egitearekin batera, eurak, politikari bezala, EREDU IZAN beharko lirateke. | -Herri mailako politikariek.<br><br>-Diputazioetako politikariek.<br><br>-Eusko Jaurlaritzako politikariek. |

| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
|---|---|
| | Gaur egun, Hezkuntza Lege berriaren garai honetan → Marko honetan burutu beharko litzateke. Bestela, legearen babesik gabe oso zaila da. |

## 4.ERRONKA: KULTURARTEKOTASUNA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| -Identitateaz HAUSNARKETA AKTUALA ETA URGENTEA behar da → Zer da gaur egun EUSKALDUN izatea? → Gai arriskutsua eta delikatua dela uste da eta, horregatik, hausnarketa behar dela azpimarratzen da.<br><br>-Zein da Iparra? Gizarte berri bat sortzen ari dela kontuan edukita → Identitateaz haratago, Giza Eskubideak eta norbanakoaren nortasuna kontuan eduki eta errespetatu behar dira. Bien arteko oreka behar da eta, ildo honetan, euskara irakasteko estrategiak martxan ipini eta bermatu. | -Legeek → Eusko Jaurlaritzak eta erakunde publiko guztiek. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| | Gaur egun, Hezkuntza Lege berriaren garai honetan → Marko honetan burutu beharko litzateke. Bestela, legearen babesik gabe oso zaila da. |

## 5.ERRONKA: FORMAKUNTZA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| -Gizartea bere osotasunean hezi behar da.<br><br>-Komunikabide guztiak formatu behar dira → Pribatuetan eragin ezin bada, behintzat, publikoetan ezinbestekoa ikusten da.<br><br>-Unibertsitatea edo aditua den eragilearen eta ikastetxearen arteko hartu-emana egoteko eta mantentzeko figura sortu beharra ikusten da. | -Komunikabide guztiek: Telebistak, irratiak, egunkariak, Internet, Sare sozialak ea. → Beraiek ere propio jaso behar dute formakuntza.<br><br>-Eusko Jaurlaritzak. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| | Gaur egun, Hezkuntza Lege berriaren garai honetan → Marko honetan burutu beharko litzateke. Bestela, legearen babesik gabe oso zaila da. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 6.ERRONKA: GOBERNANTZA PARTEKATUA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| -Aurreko puntuetan zeharka aipatu den bezala, erakunde eta arlo guztietako politikariek, eredu izatearekin batera, formatu, inplikatu, mezu eta benetazko esperientzia eraikitzaileak zabaldu behar dituzte. | -Maila eta arlo ezberdinetako politikari guztiek.<br><br>-Mugimendu sozialek ere oinarritik mugitu beharko lukete gaia eta herrietako udalekin eta ikastetxeetako kideekin (Irakasleak, gurasoak ea.) batera lan egin. |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| | Gaur egun, Hezkuntza Lege berriaren garai honetan → Marko honetan burutu beharko litzateke. Bestela, legearen babesik gabe oso zaila da. |

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

**TALDEA: ATURRI**

## 1.ariketa: adostasunak, desadostasunak eta horiek kudeatzeko ideiak

| | | Adostasunak | Desadostasunak |
|---|---|---|---|
| **EZAUGARRITZEA** | 6.1. Segregazioaren definizioa | Orokorrean adostasun maila handia agertu da proposamenarekiko. Baloratzen da ere nahiko definizio teknikoa dela, eta hotza, eta onartzen da ere hortik harago joateko dagoen zailtasuna.<br>Faktore nagusiak ongi jasotzen direla baloratzen da, ondorioz adierazle nagusiak. | -Falta da beste ezberdintasun maila: izaera publikoa/izaera pribatuari dagokiona, hots, zentroaren izaera juridikoa edo hezkuntza sistemaren antolaketa esparruan.<br>-Zentro barruetan ere segregazioa gertatzen da, eta horrek ere agertu behar du: ikastetxe/zentro bakoitzaren baitan gertatzen den segregazioa. Harago joanda ere, Curriculuan ere segregazioa agertzen da…<br>-Zalantza sortzen da hitz zehatz batzuekin: lurralde eta hezkuntza maila "bereko", ezeroso sentiarazten du. Egokiagoa da "anitza" hitza txertatzea.<br>-"ezberdina" terminoa ere ezeroso sumatzen da.<br>-Hemen jaiotako haurrak, gurasoak kanpoan jaio izan direnak, noiz izango dira "Hemengo"? "hangotzat" hartzen dira, eta haiek normalean "hemengotzat" jotzen dituzte, hemen jaioak direlako.<br>-Interrelazioak balioan jartzen duen esaldi bat falta dela baloratzen da. |
| | 6.2. Ondorioak | Ikuspegi orokorra jasotzen da, konplexutasuna jasotzen da | -Giza duintasuna azpimarrarekin agertzea proposatzen da.<br>-Eskola arrakastarekin batera, pertsona/talde garapena eta ongizate osasuntsua agertzea proposatzen da.<br>-Erantzunkidetasuna. Gizarte konexio eta garapena agertzea proposatzen da.<br>-Falta da adieraztea eta balioan jartzea "ezberdinen artean nahastu gabe galtzen duguna, aberastean garena". Nahastu gabe denok galtzen duguna uste dut, eta nahastuz, denok irabazten dugula uste dut. Hori aitortzea eta azpimarratzea proposatzen da. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | -Metatzeak=birsortzea dakar, hots, ezberdintasunetan indarra jartzea eta desabantailetan sakontzea.<br>-Segregazioak ere "guri"kaltetzen digula agertu behar du. Ezberdintasunetan oinarritzen den egitura jerarkikoak denoi kaltzetzen digu.<br>-Segregazioa etetea, eta gizarte egitura horizontalagoak landuz eta elikatuz, gizartea=denok irabazle. GIZARTE GARAPENA.<br>-Erantzunkidetasunarekin batera, txertatu: inplikazioa eta konpromisoa terminoak.<br>-Arrakasta, zerrekin lotzen dugu? Ahalmen materialarekin? Arrakasta ere beste esparru eta dimentsio batzuetan badago!! Ez da soilik materiala aitortu behar!<br>-Arraza partez, etnia terminoa jartzea egokiagoa dela baloratzen da, eta aldi berean onartzen da oso eztabaida antropologiko espezializatua dela. Zalantza. |
| | 6.3. Kausak | Teorikoegia ote den baloratzen da, eta era berean, zuzena dela baloratzen da.<br>"masa"ren dementsioa kontuan hartu beharra azpimarratzen da. | -Ordezkatu: "beste maila batzuetatik aurre egin ezean…:"eta jarri= "Komunitate gisan aurre egin beharra…" buelta eman eta propositiboki jarri.<br>-Kudeaketa exkaxa (zehaztu)<br>-Azken esaldiarekin adostasunik ez: estruktura klasista da arazoa. Kudeaketa bale, baina estruktura eredua bera.<br>-Masatik harago neurtu behar da fenomenoa, kuantitatiboa baino harago. Gehitu neurtu eta baloratu behar dela zentro bakoitzean gertatzen den konplexutasuna. Ezberdintasun sozioekonomikoak neurtu eta kokatu eta ulertu zentro bakoitzeko, tokian tokiko. Neurketak eta balorazioak kuantitatiboki eta kualittiboki osatu behar dira. |
| **ITUN SOZIALA** | 6.4. Diagnostikoa | | AURREKO ATALEAN AIPATUTAKOA ERREPIKATU DA.:<br>- Komunitate gisan aurre egin beharra… propositiboki jarri azalaraziz denoi ekartzen digun onura. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | (hausnarketa aurreko puntuaren ildotik joan da, segregazioari aurre egiteak DENOI egingo digu onura. |
| | 2.1. Helburu orokorra | Orokorrean nahiko ados jasotzen denarekin | Hainbat ñabardura:<br>-Bukaeran gehitu honako ideia: “gaur egungo asimilazionismoa  baztertuz”(maila denetan: eskolan, gizartean, kalean, familian…)<br>-Gogoetak: noiz bihurtzen da pertsona “bertako”? “Gu” hori berdefinitzeko norabidea proposatzen da, “Herri Imaginario”kolektiboa.<br>-Oinarrizko aterabide komun, adostu eta **ahaldundua.**<br>**-**Eskolak ziurtatu eta ardaztu behar du “hemengoa” betea ukatu gabe, bestea ere barnebilduz. |
| | 2.2. Hezkuntzaren eginbeharra | Tentsioa sumatzen da hezkuntza eta eskolaren egitekoan | -Eskola gizartearen ezberdintasunen isla da.<br>-Eskola tresna da eta izan behar du gizarte hobeagorantz joateko.<br>-“Bermatu” jartzen duen lekuan “lagundu” hitza jartzea proposatzen da, ezin baitzaio hezkuntzari pisu guztia jarri, eta hezkuntzak ezin du “bermatu” sistemaren beste ataletan ere ez bada bermatzen. Ez da soilik eskolaren zeregina. Modu sistemikoan begiratu beharra, begirada sistemikoa.<br>-“Bizitzen aritzeko”_ “izateko” terminoarekin ardaztu. |
| | 2.3. Euskara oinarri | Orokorrean ados. | -Kudeatu bai, baina modu “esanguratsuan kudeatu” beharra sumatzen da. IAP metodologia puro eta dinamikoan. |
| **ERRONKAK** | 3.1. Gizartearen inplikazioa | Ados, polita da horrela irakurtzea. | Literaturatik praktikara dagoen jauziak kezka sortzen du |
| | 3.2. Lidergo politikoa | | -Benetako zalantza sortzen da: lehentasun politikoa da? Izan behar du lehentasun politikoa |
| | 3.3. Kulturartekotasuna | | -Euskalgintzaren begirada osatu beharra: euskararentzat beste hizkuntza txikiak “mesede” dira. Norabide horretan egin behar zaie lekua. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | 3.4. Formakuntza | | -Gehitu "irakasle gaiak": hekzuntza eta gizarte mailako gradu eta moduluetan gaiak landu behar dira.<br>-Teoriatik at, edo teoria gainditiuz egin behar dira formakuntzak. |
| | 3.5. Gobernantza partekatua | | ZALANTZA ETA EZTABAIDA SORTU DA:<br>-Banatu bi erronketan:<br>-Gobernantza partekatua<br>-Tokikotasuna<br>EDO<br>-Tokian tokiko Gobernantza partekatua |

**PROPOSATZEN DA 3.6 ERRONKA GEHITZEA:** EREDUAK/ ADIBIDEAK/ ESPERIENTZIAK JASO, SITEMATIZATU ETA ESKURA JARRI (DIFUSIOA, ZABALDU, EZAGUTARAZI….)

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

## 2. ariketa: lan-talde txikietan jasotako adostasun/desadostasunak kudeatzeko proposamenak

OHARRA: Bi azpi taldeetan banatu dira mahai kideak, eta bakoitzak 3na erronka landu ditu. Horiek batera, eta bereiztu gabe landu dituzte, hau da, multzo osoa eta integratu gisan ulertuta erronka horiek.

### 1. ERRONKA: HEZKUNTZAREN EGINBEHARRA (2.2)

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|

*~~-Desadostasunak~~, hitza kendu, eta "ñabardurak kudeatzeko"gehitu*
*-Hezkuntzak "lagundu" behar du gizarte eta sistema ezberdinatasunak gainditzen (hezkuntzak ezin du bermatu sistemak bermatzen ez duenik)*
*HEZKUNTZA PROEIKTU PARTEKATUA TOKIAN TOKIKO*

| | |
|---|---|
| **1. AKTOREAK** Gobernu taldeak, eragile sozialak, hezkuntza komunitatea (familiak, haur/gazteak/klaustroa…; gizarte zerbitzuen garrantzia) | **Lidergo politikoa:** tokian tokiko administrazio burua/gobernu taldearen konpromisoa eta inplikazioa.<br>-**Hezkuntza sailak**= malguntasuna baliabide gehiago jarriz, lan ildo partekatuak ezarriz ikastetxeen errealitatera egokituz; konplexutasun maila aintzat hartu. |
| | **Hezkuntza komunitatea:** lidergo aitortu bat zuzendaritzei; harremanak eta gerturatzeak landu; testuinguruak herri proiektuak eskaini.<br>-Familiak: eskola-familiak zubiak eraiki<br>-Berritzeguneak-gizarte zerbitzuak<br>-Haurrak/gazteak |
| | **ELKARREKIN ARITZEKO, INTERAKZIORAKO GUNE PARTEKATUAK (lotu 3.1. erronkarekin=gizarte zibilaren inplikazioa. SINERGIAK)** |

**LIDERGO PARTEKATUA= KONFIANTZA.** Horretarako uko egin behar diogu "gure" botereari eta eman behar diegu haiei, maila denetan, egitura denetan.
AITORTZA: benetako lankidetza haiekin, gizarte erronketan, sistemaren erronketan. Bidea elkarrekin, batera joan.

*HARRERA/AKONPAÑAMENDU EREDU BERRI ETA PROPIOA ERAIKI (Administratiboaz gain, juridikoaz gain!)*

| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* ***SISTEMATIKOKI*** |
|---|---|
| *TOKIAN TOKIKO Eremu ezberdinetan:*<br>*-ADMINISTRAZIOAN/INSTITUZIOAN*<br>*-KOMUNITATEAN: tokian tokiko izaera kontuan hartuz* | *Gure ohiko egituretan presentzia izan behar dute, eguneroko egituratan, erreferentzialtasuna izan dezaten legitimatu.*<br>*Estrategia partekatu, plazaratu eta ikusgarri behar da. Konplizidadea landu behar da.* |

| | |
|---|---|
| *ETA EGINDAKOA ZABALDU, PARTEKATU, BALIOAN JARRI*<br>*ESKOLA-ADMINISTRAZIOA-KOMUNITATEA: proiektu partekatua*<br><br>*ESTRATEGIA: GIZARTE EREDUA* | |

## 2. ERRONKA: 3.1 GIZARTEAREN INPLIKAZIOA; 3.2 LIDERGOA

| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
|---|---|
| *-ZURRUMURRUAK ekimenaren gisako dinamikak, aurreiritziak deseraikitzeko+ IKUSGARRITASUNA eman=gizarte proiektu gizan ezagutu behar da (2.2. erronkako aktoreen partaidetza behar da)*<br><br>*-LIDERGO PARTEKATUA: konfiantza behar da. Bakoitzak daukan pribilegioari uko egitea dakar. Botere harremanak ekidin, eta benetako lankidetza harremana behar da* | *2.2. Erronkari jarritakoa errepikatzen da gogoetan.* |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| *TOKIAN TOKIKO "komunitate" hurbiletan (herri/auzo mailan), eta porosidadea lortu.*<br>*-eta toki bakoitzeko eremu guztietan.* | *HERRI ESTRATEGIA PARTEKATUA, ADOSTASUNAREKIN* |

| **3.4.5. ERRONKA: KULTURARTEKOTASUNA, FORMAKUNTZA ETA GOBERNANTZA PARTEKATUA** | |
|---|---|
| *Zer egin beharko litzateke desadostasun hori(ek) kudeatzeko?* | *Nork egin beharko luke?* |
| *-Hezkuntza komunitateak elkarrekin landu behar ditu: formakuntza, kulturartekotasuna (hori da gobernantza partekatua)*<br>*-Komunitateen komunitatea irudikatu eta egituratu.*<br>*-Solas guneak sortu: "denak ez du balio" ideiapean, balio sistema partekatua sortu. Gune partekatuak, rol eta funtzio anitzak elkarri begira jartzeko, osotasuna irudikatzeko elkarrekin.*<br>*-Eskolan benetako autonomia garatzeko.*<br>*-Gizarte zerbitzuetan, asistentzialismoa ekidin, eta beste akonpañamendu zerbitzua sortu-definitu- adostu… Gizarte Zerbitzuak sendotu*<br>*-ASIMILAZIOA EKIDIN: etxeko kultura eta hizkuntzen lanketa erraztu*<br>*-ESPERIENTZIA/EREDUAK ezagutzeko, aztertzeko eta ondorioak ateratzeko guneak landu.*<br>*-HAIEKIN HITZ EGIN ZUZENEAN, HAIEI ENTZUN.*<br>*-SAREAK* | *-Komunitate osoan eta herrian*<br>*-Udalek paper berezia izan behar dute, markoa eta egituratze prozesurako baliabideak.*<br>*-Udalen eskumenak sendotu, segregazioari modu integratzailean erantzuna emateko (segregazio urbanistikoa ere existitzen baita!!!)* |
| *Non egin beharko litzateke?* | *Noiz egin beharko litzateke?* |
| *-TOKIKO KUDEAKETA: tokian tokiko errealitatera egokitu beharra. Herrien tamainak asko baldintzatzen du*<br>*-KALERA ATERA GAIA: Balioan jarri*<br>*-FORMAKUNTZA KOORDINATZEKO GUNEAK (sortu), MAILA INSTITUZIONALEAN* | *PREMIA LARRIKO EGOERA ETA ERANTZUNA eman behar aio, baina epe ertainera begirako politikak behar dira, ikuspegi dinamikotik egokituz eta beharretara kokatuz joango direnak.*<br>*"ATZO" MARTXAN BEHAR ZUENA, berehala martxan jarri behar da.* |

**Bestelako oharrak:**

**3.6 ERRONKA PROPOSAMENA: ESPERIENTZIAK/ EREDUAK/ADIBIDEAK ezagutarazi, zabaldu eta elkarrekin ikasi**

-Baliabideen bankua/kutxa sortu: BERTAN, errez identifikatu daitezkeen esperientziak kokatu, horiekin harremanetan jartzeko modua jaso
-Nazioarteko ereduak
-Gobernu eta kudeaketa ereduak
-Komunitate ereduak

**La Sinia (Vic): aipatzen da esperientzia eredugarri gisan.*
**Gottnbugh: aipatzen da esperientzia eredugarri gisan.*

**BILERA: Eusko Ikaskuntza - Segregazioa**
**EGUNA:** 2022/09/17
**ORDUA:** 9.30-14.30
**LEKUA:** Europa Biltzar Jauregia (Gasteiz)

EUSKO IKASKUNTZA Asmoz ta Jakitez | elhuyar

## TALDEA: ERRO

### 1.ariketa: adostasunak, desadostasunak eta horiek kudeatzeko ideiak

| | | Adostasunak | Desadostasunak |
|---|---|---|---|
| **EZAUGARRITZEA** | 6.5. Segregazioaren definizioa | -Definizioaz haratago diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo adostu eta partekatu batetik abiatu behar dugu. Arrakastarako item eta hitoak (helburu kuantifikagarriak) ezarri ahal izateko. Jomuga honen arabera neurriak inplementatze aldera. | -Justizia soziala definizioan txertatu beharko litzateke.<br><br>-Alderdi sozioekonomikoa da garrantzia handiena duena segregazioaren aferan eta txostenean ez da oso garbi galdeitzen alderdi hori azpimarragarriena denik.<br><br>-Marko kontzeptual orokorra eraikitzen ari gara, toki guztietarako balio duena. Baina txostenean euskal hezkuntza ezaugarritzen duena zer den ez da aipatzen.<br><br>-Genero edo erlijioaren araberako banaketa desorekatua teorian gerta daiteke, baina gero txostenean esaten den moduan, arazoa maila-sozioekonomikoa da. |
| | 6.6. Ondorioak | -Baliabide egokiak bideratzen ez badira egoerak egonkortzen dira. | -Helduaroan "hiritartasuna praktikan" jartzeko joera kolokan jarri behar da parte-hartze prozesuetan. Praktika demokratikoen espazioetan (deliberazioak, hausnarketak…).<br><br>-Helduaroan aukera profesionalak gutxitzeko arriskua dago segregazioarekin.<br><br>-Defizitan oinarritutako planteamendua da. Hobe litzateke aukeretan oinarritutako diskurtsoa balitz.<br><br>-Eskola arrakastan gain ikasleen bizitzaren beste alderdi askotan ere eragin dezake. |
| | 6.7. Kausak | -Ez al da une historiko guztietan lehia neoliberalari lotuta egon? | -Gizarteari deia egitea faltan bota da. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | -Genero sistema bitar eta heteropatriarkala ere kausa bat da. Euskal Herrian, egun, generoaren arabera segregatzen duten eskolak badira.<br><br>-2. Paragrafoaren formulazioarekin desados. Hezkuntzaren ardura gutxiesten duela dirudi: “neurriak hartu daitezkeen arren…”. Beldurti hitzarekin zer esan nahi da? Hori definitu beharko litzateke. Kudeaketa beldurtia zeinena?<br><br>-Orokorrean testuaren erredakzioarekin zalantzak azaleratu dira. “Baina”, “arren”… agertzen dira. Horrek posizionamendu puntu bat erakusten du inplizituki. |
| **ITUN SOZIALA** | 6.8. Diagnostikoa | -2. Paragrafoa oso garrantzitsua da.<br><br>-3. Paragrafoarekin ados, baina motz gelditzen da. Ez dira beldurrak eta erresistentziak bakarrik kudeatu beharko, baita matrikula jaitsierak ere.<br><br>-Diagnostikoa adostutako indizeekin egitea erabat beharrezkoa da. Zertarako? Desiragarria den egoerarra heldu edii hurbiltzen ari garen balioetsi ahal izateko. | -1. paragrafoan zerbait falta da: “Euskal Herriak dituen X demokrafiko…” eta hirien tamaina arrazoi nahikoa da esateko segregazio ez dela arazo orokor eta kezkagarrienetakoa?<br><br>-Indizeak kuantifikatze aldera etiketartzearen arriskua dago. Banaketa kuantitatiboa da irtenbide bakarra?<br><br>- |
| | 2.1. Helburu orokorra | -Berdinen arteko elkarrizketaren beharrari hierarkiarik gabekoa eta argudioen balioan zentratuta erantsi. Ituna eraikitzeko ezinbesteko alderdia da.<br><br>-Azpimarratzeko: pertsonen eskubideak zainduaz eta pertsonak duen erantzunkizunaz barneratuz gizarte justu eta ekitatiboan eragin lekuan lekuko itunez, eta zabalik egonaz. | -Beraietaz hitz egin beharrean beraiekin hitz egiten hasi beharko ginateke.<br><br>-Herritarrak/norbanakoak falta dira. Segregazioaren kontra/aniztasunaren alde jokatzeko non geratzen da norbanakoa?<br>-Ikastetxea eutokia bezala hartzen ari da (utopia + eu “ona”). Aukera berdintasuna bermatzeko erakundeak, elkarguneak, agora, plaza, laborategiak behar dira. Hori ikas komunitate OSOAren erronka da.<br><br>-Giza garapena eta giza eskubideak helmuga izateaz gain, ORAINA izan behar dute. Egunerokotasunean bermatu behar dira. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | 2.2. Hezkuntzaren eginbeharra | -Aukera berdintasunaz haratago, arrakasta ere bermatu behar da.<br><br>-Hezkuntzan kalitatezko aukera berdintasuna lantzeko baliabideak jarri eta borondate politiko sendoak ehunduz; ikastetxearen errealitatea aintzat hartuz. | -Gizartearen ondorio da segregazioa, hori dago testuan inplizitu hainbat momentutan. Baina hori esatea nahikoa da? Horrek ez al dio hezkuntzan hartzen diren erabakiei ardura kentzen? “Arren”, “baina”… dezente dago testuan.<br><br>-Aniztasun mota bat traba izan daiteke.<br><br>-Hezkuntzaren zerbitzu publkoaren izaera *bultzatu* behar da?<br><br>-Eskola/hezkuntza sistema gizarterako tresna gako bezala ulertu. Horretarako itun komun eta adostua sortu.<br><br>-Gizarteak zer pentsatzen du segregazioak? Berdin ulertzen du segregazioa foroan parte hartutako herritarrek eta gainontzeko gizarteak? Ez. Aniztasuna ezin da soilik balore positibo moduan ulertu. Segregazioa gizarte neoliberal batentzat nahita egindako elementua da.<br><br>-Sistemikoak izan behar diren aldaketak ez dira sistesi txostenean agertzen, soilik dimentsio konpentsatzailea. |
| | 2.3. Euskara oinarri | -Euskara oinarri eta ardatz izan behar du. Baita euskal kultura ere, eta ondarea, berezitasunak ezagutzeko eta bizitzeko aukera emanez.<br><br>-Euskararen ezagutzak aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa elikatzen ditu.<br><br>-Euskararen ezagutzak aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa elikatzen ditu. Baina testuinguru batzuetan? Beti? Ditu baino beharko lituzke? | -Lehen euskarak egiten gintuen euskaldun, orain beharbada ez. Berrezartzearen aldeko apostua egin behar dugu, baina egungo errealitatea ezin da ukatu.<br><br>-Euskara eta euskal kultura kohesiorako tresna izan beharko lirateke?<br><br>-Horretarako kulturartekotasunaren printzipioak definitu beharko lirateke.<br><br>-Euskara eta euskal kultura gutxituak dira. Baina goiko geruza soziala da kolonizatzen duena. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | -Sintesiaren planteamenduak inplizituki euskara Vs. Besteak erakusten du (horrek ez ditu ukatzen). Uste da aliantza terminoetan interesgarriagoa izango litzatekeela, beti ere euskararen zaurgarritasuna aintzat hartuz.<br><br>-Euskaran eta euskal kulturan murgiltzea helburu partekatua dela aipatzen da. Baina berez ez da tresnarik potenteena, eta hainbat kasutan ere kohesiorako oztopo izaten da.<br><br>-Nola egin euskara eta euskal kultura denon tokia dela sinistarazteko? |
| **ERRONKAK** | 3.1. Gizartearen inplikazioa | | -Aspalditik gertatzen den fenomenoa da eta aspalditik ezagutzen den egoera da. Baina neurriak falta dira eta borondate politiko falta dago.<br><br>-Sintesian dio ahotsa kolektibo segregatuei bereziki eman behar zaiela. Alde batetik, nola egin hori kuota bat bilakatu gabe; eta bestetik, irailaren 17ko saio honetan non egon dira?<br><br>2.4. puntua gehituko luke baten batek sinkroniari leku bat egiteko: helburuetan, denboretan, jarreretan. |
| | 3.2. Lidergo politikoa | -Lidergo partekatuaren bidez zerbitzu publikoa azpimarratuz, guztien artean eta baliabideak eskainiz, erantzun egokiak bilatzen joan.<br><br>-Erakunde publikoen ardura da eta beharrezkoak diren baliabideak bideratu behar dira. | -Euskara eta euskal kultura gutxituak dira. Baina goiko geruza soziala da kolonizatzen duena. |
